7

Hezkuntza baliabideak

ALBOAN

Ura: ondasun publikoa.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Saiburuordetza
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Cooperación al Desarrollo

Objetivos de Desarrollo del Milenio

Milurteko Garapen Helburuak

Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko 9 koadernoz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (komikiak, posterrak, ikerketak...), eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

Hezkuntza baliabideak ALBOAN

0. Milurtekoko Garapen Helburuak:
Aldaketarako tresna edo garapen gaingabetua? (2007)

1. Zero Pobrezia.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

2. Lehen Hezkuntza guztiontzako.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

3. Genero-berdintasuna sustatzea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

4. Haurren heriotza-tasa murriztea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

5. Amen heriotza-tasa murriztea.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2007)

6. HIESa justiziaren ikuspegitik.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)

7. Ura: ondasun publikoa.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat. (2008)

Ura: ondasun publikoa. Helburu bat baino, garapen eskubide bat

Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda Kalea 7, 4. Ezk • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Alfredo Ferro Medina, Lancy Lobo eta ALBOAN

Data: otsaila 2008

Itzulpena: Elhuyar

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-3065-07

ISBN: 978-84-611-9820-7

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

Aurkibidea

**Ura: ondasun publikoa.
Helburu bat baino,
garapen eskubide bat.** Alfredo Ferro Medina 5

I. Sarrera 5

II. Uraren problematikaren gaineko testuinguru historikoa 7

III. Pribatizaziorantz 16

IV. Nekazarien institutu nagusiak (IMCA) herrietan eta eskualdeetan uraren gainean egindako lana 27

V. Ondorioak 35

Bibliografia 40

Anexo 42

Eztabaidarako eta ekintzarako galderak 46

**Garapenaren bortizkeria:
Ukai presaren azterketa Gujarat-en, Indian.** Lancy Lobo, sj. 47

Glosarioa 53

Ura: ondasun publikoa.
Helburu bat baino, garapen eskubide bat

*Alfredo Ferro Medina**

I. Sarrera

> *"Oraindik badugu denbora helburuak lortzeko, mundu guztian eta herrialde gehienetan, guztietan ez bada, baina ohikeria hausten badugu soilik lortuko dugu hori. Arrakasta ez dugu egun batetik bestera lortuko, hamarkada osoan etengabe lana egin beharko dugu, orain hasi eta epea amaitu arte... Beraz, oraintxe bertan ekin behar diogu lanari. "* (Kofi A. Annan, NBEko idazkari nagusia).

Dokumentuaren hasieran jarri ditugun Kofi A. Annanen hitzak, ziurrenik, positiboegiak dira, eta, gure ustez, ez diote errealitateari erantzuten orain arteko Milurtekoko Garapen Helburuen xede nahiz adierazleen balantzea egitean.

2000. urtean, 147 herrialdetako estatuburuak eta 42 ministro nahiz ordezkaritzaburu elkartu ziren Nazio Batuetako Batzar Nagusian, asmoetan bat etortzeko eta planetarekin eta, batez ere, hirugarren mundukotzat hartutako herrialdeekin konpromisoa hartzen saiatzeko. Erabakia 8 helburutan eratu zuten, eta Milurtekoko Garapen Helburu (MGH) izenez ezagutzen ditugu helburu horiek.

* Alfredo Ferro Medina, Instituto Mayor Campesino eta Bakerako Programako zuzendari ohia da, biak Jesusen Lagundiak Kolonbian dituen GKEak dira. Hego Amerikan Jesusen Lagundiaren Probintzialen Konferentziaren sektore sozialeko koordinatzailea.

Horietariko bakoitzarentzako xede eta adierazleak zehaztu zituzten, eta horiek 2015erako betetzea espero dute. Oro har, pobreziaren eta gosearen aurka borrokatzera, ingurumen-narriadura konpontzera eta hezkuntza nahiz osasuna hobetzera bideratuta daude helburu horiek. *"Ahalegin guztiak egingo ditugu gure hurkoak, gizon, emakume eta umeak, muturreko pobrezia doilor eta gizagabetik ateratzeko. Egun 1.000 milioi gizaki baino gehiago daude egoera horretan. Horiei guztiei garapenerako benetako eskubidea eman nahi diegu, eta gizaki guztiak beharraren babesean jarri nahi ditugu"* (NBEren Milurtekoko Adierazpena, Nazio Batuak A/Res/55/2, 2000).

Adierazpenaren III. kapitulua Pobreziaren garapenari eta hura erauzteari buruzkoa da (19. zenbakia), eta Nazio Batuek uraren arazoa honela jorratzen dute: *"2015erako, egunean dolar bat baino gutxiago irabazten duten pertsonen kopurua erdira jaistea, baita gosea pasatzen dutenena ere; halaber, edateko urik ez dutenen edo ordaindu ezin dutenen kopurua erdira jaistea data horretarako"*.

2002an, edateko uraren gaia berretsi zuten Johannesburgon, eta MGHekin bat zetorren beste jomuga bat ezarri zuten: *"Urte horretarako (2015) saneamenduzerbitzurik ez duten pertsonen kopurua erdira jaistea"*, eta beste esparru nagusi batzuetan ere xedeak eta konpromisoak ezarri zituzten, esaterako, *"pobrezia erauztea, ekoizpen eta kontsumoko patroijasanezinak aldatzea, eta baliabide naturalen oinarria babestea eta antolatzea"*.

Testu honek Milurtekoko Garapen Helburuetako zazpigarrenari eutsi nahi dio: **"Ingurumenaren jasangarritasuna bermatzea".** Helburu horren 10. xedea nabarmentzea da gure asmoa: *"2015erako edateko urik nahiz oinarrizko saneamenduzerbitzurik ez duten pertsonen kopurua erdira jaistea",* eta, batez ere, 30. adierazlean, hots: *"Hiri- eta landa-eremuetan hobetutako ur-hornikuntzak modu jasangarrian lortzeko aukera duen biztanleriaren proportzioa"*. Xede hori eta adierazle hori nabarmenduta, jasangarritasunaren aldetik gogoeta egin nahi dugu, errealitatearen dimentsioen begirada osotzat hartuta (ekonomikoa, soziala, ingurumenekoa, kulturala eta espirituala).

Munduko, Latinoamerikako eta Kolonbiako errealitatea hartu dugu erreferentzia gisa, betiere adituen dokumentuekin osatuta. MGHen ebaluazio orokorra egiten da dokumentu horietan; batez ere, 10. xedearen ebaluazioa.

Milurtekoko Helburuen barneko xede hori gaika garatzean, Bugako Nekazarien Institutu Nagusia (IMCA) Fundazioaren lan-esperientzia hartu da oinarritzat (Valle del Cauca, Kolonbia). Nazioan, eskualdeetan eta herrietan duen eragina aztertu da.

Jesusen Lagunak zuzendutako GKEa da IMCA, eta, haren nortasunari dagokionez eta jasangarritasunaren ikuspegitik begiratuta, garapen-aktore guztiekin batera, eskualdeetan nahiz herrialdean, eginkizun hau du: "Bizitzako eta gizarteko proposamen desberdinak eraikitzen eta indartzen laguntzea, betiere nekazarien landa-bizitza pribilegiatuta". Halaber, praktika erabiliz eta milurtekoko helburuei begira, misioan zehaztutako beste lan-ardatz bat ere badu IMCAk; hain zuzen, ondare hidrikoa babestea eta, hala, eskualdeko ingurumen-jasangarritasunaren prozesuan laguntzea.

II. Uraren problematikaren gaineko testuinguru historikoa

Planetaren ezegonkortasuna ingurumen-errealitatea

Gizateriaren ingurumen-ondarea etengabe narriatzen ari gara, batez ere, eragile hauen ondorioz: airearen poluzioa, laborantza-lurren, basoen eta itsas baliabideen gehiegizko ustiapena; gehiegizko larratzeen eraginez azalera gaizki erabiltzea eta horrek sortutako higadura; lurzoruak gazitzea; ur-eskasia eta -poluzioa; ozono-geruza murriztea eta horrek eragindako berotegi-efektua; poluzioa; eta, oro har, planetako biodibertsitatea azkarregi desagertzea. Ingurumen-ondarea inoiz baino arrisku larriagoan dago.

Aberastasuna ez dago ondo banatuta, eta, horrez gainera, basoak, lurra eta ura gehiegi, etengabe eta kontrolik gabe erabiltzen dira. Horrek aldaketa kezkagarriak eragin ditu ingurumenean azken hamarkadetan. Hein handi batean, gutxiengo boteretsuak du horren ardura; haren praktika eta politikekin, planetako biztanleriaren gehiengo handiaren interesak urratzen dira (gizakienak eta, oro har, biodibertsitatea osatzen duten izaki bizidun guztienak).

Aipatutako 7. helburuan ingurumenaren jasangarritasuna esaten dugunean, jasangarritasunaren ikuspegiak sustraiak ditu, batetik, 80ko hamarkadako ingurumenaren aldeko mugimenduetan eta, bestetik, jasangarritasun ekonomikoan; alabaina, egun kontzepzio hori nabarmen gainditu da, osotasun konplexutzat hartu baita errealitatea eta ulertu baita dimentsio guztiek (ekonomia, politika, ingurumena, gizartea eta kultura) elkarri eragiten diotela errealitate horretan. Jasangarritasuna ulertzeko modu horretatik abiatuta, ezinezkoa da dimentsio bakoitzaren jasangarritasunean pentsatzea, elkarren mende baitaude. Hori horrela, guztiaren jasangarritasuna ez da zati bakoitza batuta izango genukeen jasangarritasuna, hura osatzen duten dimentsioen harmonia-erlazioarekin eta konbinatuarekin lortutako ondasun kualitatiboki ezberdina baizik. Ingu-

rumenaren jasangarritasuna ezin da ulertu beste dimentsioekin harremanetan jarri gabe.

Uraren problematika munduan

Acción contra el Hambre nazioarteko GKEak eta Uraren Munduko Foro Alternatiboak emandako datuen arabera, egun, munduko uraren egoera hau da:

- Munduko uraren %97 gazia da.
- Ur gezaren %1 soilik eskura dezakegu.
- Munduan, 1.000 milioi pertsonak ez dute edateko urik.
- 5 afrikarretik 2k ez dute edateko urik.
- Urarekin lotutako gaixotasunen ondorioz, urtean 2.400 milioi pertsona hiltzen dira, gehienbat haurrak.
- Lehorteen eta uholdeen ondorioz, 60 milioi pertsonak elikatzeko berehalako laguntza behar dute.
- 2.400 milioi pertsonak ez dute osasun-zerbitzurik.
- Egunero 30 mila pertsona hiltzen dira edateko urik ezak edo osasun-zerbitzurik ezak eragindako gaixotasunen ondorioz.
- Mundu osoan, ur asko gastatzen da alferrik: erabilitako uraren %40.

Horrez gain, duela 5.000 milioi urtetik hona planetako ur-kantitatea berbera da, biztanleria asko hazi da, ura ez dugu behar bezala erabiltzen, kutsatu egiten dugu, klima aldatzen ari da eta iraunarazteko politika publikorik ez da ezarri. Horren guztiaren eraginez, gero eta edateko ur gutxiago dago.

Planetaren zatirik handiena urak osatzen badu ere (%70), argi dago gutxi dagoela, eta, gainera, gaizki banatuta. Ehuneko txikia da ur geza –%3 baino ez–, eta ezin da guztia eskuratu; izan ere, zatirik handiena Ipar eta Hego poloetako glaziarretan dago. Uraren %1 soilik eskura dezakegu, lakuetakoa, ibaietakoa eta lur azpian sakonera gutxira dagoena. Euriteekin eta elurteekin, berritu egiten da ur hori. Egoera horri beste eragile bat gaineratu behar zaio; planetako eskualde batzuetan, haien mesederako, ur asko dago; beste batzuetan, berriz, ia batere ez. Beraz, gizateriaren erdiarentzat baliabide urria da ura. Eta egoera larriagotu egingo da, munduko biztanleria handitzen den heinean uraren kontsumoa handitzen baita, eta gero eta ur gutxiago baitago. Kontinenteen arteko desberdintasunak

gero eta nabarmenagoak izango dira, eta biztanleriaren garapenean eta bizitza-kalitatean islatuko da hori[1].

Gutxi gorabehera, bi milioi haur hiltzen dira urtean (egunean 6.000) ur zikinak edota egokiak ez diren osasun-instalazioek eragindako infekzioengatik; infekzio horiei aurrea har dakieke berez. Giza Kokalekuetarako Nazio Batuen Programaren arabera (UN-HABITAT), edateko urik ez duten 1.000 milioi pertsona horiek auzo marjinaletan bizi dira egun, batez ere, "garabidean" dagoen munduan; han txabola-auzoetan bizi diren biztanleak hiriko biztanleriaren %40 dira. Litekeena da kopuru hori 2.000 milioiraino haztea 2020rako.

Osasun-zerbitzuek jatorri hidrikoa duten hainbat gaixotasun identifikatu dituzte, hau da, urak eragindako gaixotasunak: tifusa, kolera, disenteria, gastroenteritisa, hepatitisa, azaleko eta begietako infekzioek eragindako gaixotasunak, ur kutsatuek eragindako parasitoak, ur geldietan edo kutsatuetan egondako intsektuek eragindako gaixotasunak eta, azkenik, higienerik ezak eragindakoak.

Lehen aipatutakoaz gain, etxeetako eta industriako erabilera dela eta, ur asko kutsatuta dago, eta estolderia-sistemetan bildutako uraren %14 baino ez dute tratatzen. Bestalde, nekazariek ongarriak, herbizidak, pestizidak eta hondakin organikoak erabiltzen dituzte, eta horiek nahiz lurraren higadurak azalerako eta lur azpiko urak kutsatzen dituzte.

Zoritxarrez, munduan dagoen ur gezaren %72 inguru iraultza berdearen pakete teknologikoaren barruan ureztatzeko erabiltzen da; hau da, laborantza kimikoan erabiltzen da. Produktuez gain, ura ere pozoitu egiten dute. Beste %20 industriak kontsumitzen du, eta gainerako erabileretarako %8 besterik ez zaigu gelditzen.

Nazio Batuek esan dutenaren arabera, gaur egun gutxi gorabehera munduan dauden 6.000 milioi pertsonetatik %40k urarekin lotutako arazoren bat izan du 2005ean, eta 2.700 milioi pertsonak ur faltagatik sufritu dute. Munduko ur-baliabidea jaitsi egin da; 1950ean *per capita* 17.000 m^3-koa zen, eta egun 7.000 m^3-koa da.

Artikulu hau idatzi den unean, 2006ko azaroan, NBEren Klimari buruzko XII. Munduko Goi Bilera egiten ari dira Nairobin; 189 herrialdek planetaren berotzea gelditzeko beste hitzarmen bat eztabaidatuko dute. 2012ra arteko Kyotoko

[1] HERRIAREN DEFENDATZAILEA - KOLONBIA, *Gizakiak kontsumitzeko uraren kalitateari buruzko diagnostikoa Kolonbian, ura izateko giza eskubidearen esparruan*, Bogota, 2005.

Protokoloa ordezkatuko du, eta garrantzia du baliabide hidrikoekin lotura duen guztian. NASAren arabera, planeta hau ez da hain bero egon 12 mila urtean, eta hamarkada bakoitzeko 0,2 gradu igotzen da tenperatura, hots, erritmo naturalean baino 100 aldiz gehiago. Horregatik jaitsi dira elurteak Europan, igo dira ozeanoak mailaz eta ugaritu dira urakanak[2].

"Eskasia baino gehiago: boterea, pobrezia eta uraren munduko krisia". NBEren Garapenerako Programarena da, eta pobreziaren, gaixotasunen eta kontrasteen egoera beldurgarria erakusten du. Txostenak hau aitortzen du: "Mundu guztiak izan behar luke gutxienez egunean 20 litro ur garbi eskuratzeko aukera, eta biztanle txiroentzat doan izan behar luke"[3].

Milurtekoko helburuetan edateko uraren gainean ezarritako jomuga 2015ean lortzeko, 1.500 milioi pertsona gehiagok izan behar dute hobetutako uraren hornikuntza-zerbitzuren bat, hau da, urtean 100 milioi pertsona gehiagok (274.000 egunean).

Uraren problematika Latinoamerikan eta Kariben[4]

Latinoamerikan eta Kariben, erauzketa guztien %20 da edateko uraren hornikuntza. Etxeko erabilera nahikoa murritza da, estalduran eskasia dago eta azpiegituretan ez da inbertitzen. Esan beharra dago 80 milioi pertsonak oraindik ez dutela edateko uraren zerbitzurik, eta 100 milioik baino gehiagok ez dutela saneamendurik, batez ere, landa-eremuetako pertsona txiroek. 210 bat milioi pertsonaren ura zerbitzu hartzaileetan deskargatzen dute inolako tratamendurik gabe, eta kutsadura-arazo larriak eragiten ditu horrek.

Latinoamerikan eta Kariben asko hazi dira ur hobetuak hornitzeko bitartekoak. Alabaina, oraindik ere 1.000 milioi pertsonak ez dituzte hobekuntza horiek jasotzen; batez ere, landa-eremuetan eta hirietako etxoletan bizi direnek.

Herrialde askok edateko ura eta saneamendua izateko zerbitzuen instituzio-egitura berritu dute, zerbitzu horiek ematean eraginkortasuna bermatzeko. Sektore pribatuari parte hartzeko aukera eman diote, eta berdintasun soziala bultzatu

---

[2] *EL TIEMPO* egunkaria, azaroak 5, igandea.

[3] NAZIO BATUEN GARAPENERAKO PROGRAMA, *Giza Garapenerako Munduko Txostena*: *"Eskasia baino gehiago: boterea, pobrezia eta uraren munduko krisia"*. 2006ko azaroa.

[4] JOSÉ LUIS MACHINEA, ALICIA BARCENA ETA ARTURO LEÓN, M*ilurtekoko helburuak. Begirada bat Amerikatik eta Karibetik*, NBE-CEPAL, 2005eko ekaina.

dute. Herrialdeek ahalegin handia egin dute edateko uraren eta saneamenduaren estaldura handitzeko; hala ere, aurrerapen argiak eta nabarmenak egin arren, benetan kezkatzeko arrazoiak ere badaude herrialde batzuetan.

CEPALek ikertutakoaren arabera, bere ebaluazioan egindako analisi konparatuak aurrerapen nabarmenak erakusten ditu lege-esparruak, arau-emaileak eta erregulatzaileak egitean eta onartzean. Herrietan edateko uraren zerbitzuak deszentralizatzeko joera egon da, eta eskualdeetako enpresa batzuetan arrakastaz eman dute zerbitzu eraginkorra, baita 200.000 biztanlerainoko komunitateetan ere. Beste kasu batzuetan, gehiegizko banaketa gertatu da –batez ere, industria-egituran–, eta horrek jarduera-erregulatzailea zaildu du.

Uraren problematika Kolonbian[5]

Kolonbiak biodibertsitate handia eta oso eremu zabalak ditu, eta, ondorioz, urarazoak ditu, biztanleria Karibeko arro hidrografiko handian kontzentratuta baitago. Eremu horrek Andeak ere hartzen ditu[5].

Gure lurraldeak du baliabide hidrikoetan aberastasun handienetakoa: uraren batez besteko eskaintza 50.000 metro kubikokoa da pertsonako eta urteko, eta munduko batez bestekoa, berriz, 7.500 metro kubikokoa da[6]. Hala ere, egun urbaliabide arazoak daude herritarren, ekosistemen eta ekonomiaren beharrak asetzeko. Eskaintza hidrikoaren zifrari kalitate-asalduraren ondoriozko murrizketak gehitzen zaizkionean, biztanleko 34.000 metro kubikoko erabilgarritasuna izaten da, ia erdia murriztuta; eta, munduko klima-aldaketa kontuan izanda, erabilgarritasuna biztanleko 26.700 metro kubikora murrizten da.

Gaur egun, hiriko biztanleriaren %50ek hornidura-arazoak ditu, eta iragartzen da 2025ean biztanleriaren %69k ur-hornidurarik ez izateko arriskua izango duela[7]. Ura modu eraginkorrean ez erabiltzeak, deforestazioak, hondakin-urak ez tratatzeak eta arroak nahiz sistema hidrikoak ez kudeatzeak baliabide-arazoak areagotzen ditu gero eta udalerri gehiagotan, eta egoera horrek, zalantzarik gabe, biztanleen bizitza-kalitatean eragiten du.

---

[5] RAFAEL COLMENARES, *El Agua: un bien publico, Razones para una campaña*, ECOFONDO, 2006ko iraila.

[6] RODRIGO MARÍN RAMÍREZ, *Agua un derecho intransferible*, Kimpres Ltda. argitaletxea, Bogota, 2004ko azaroa.

[7] URAREN IKERKETA NAZIONALA, HIDROLOGIA, METEOROLOGIA ETA INGURUMEN INSTITUTUA – IDEAM, Kolonbiako uraren informea, 2000.

Kokaleku geografikoa nahiz erliebe-egoera direla eta, Kolonbiak urtean 3.000 mm-ko prezipitazioa du batez beste. Horrek esan nahi du aberastasun handia duela baliabide hidrikoetan, munduko urteko batezbestekoa 900 mm baita, eta Hego Amerikakoa 1.600 mm. Azalerako isurketa-emari espezifikoari dagokionez, Kolonbiak 58 l/s/km^2-ko emaria du, hots, Hego Amerikako batezbestekoa baino hiru aldiz handiagoa (21 l/s/km^2) eta munduko batez besteko eskaintza hidriko espezifikoa baino sei aldiz handiagoa[8].

Hirietako kokalekuen %80ok baino gehiagok oso ur-baliabide urriak erabiltzen dituzte, eta zaurgarritasun handikoak, gainera; errekastoak, zintzurrak eta latsak, esaterako. Horiek ez dute biltegiratze naturala bermatzen muturreko klima-egoeretan, adibidez, lehorte luzeetan.

Ur-baliabideetan zaurgarritasun-analisia egitean, ikusi da 704 udalerri (herrialdeko udalerri guztien %64,6 ordezkatzen dutenak) zaurgarritasun-maila ertainean, altuan edo oso altuan daudela, batez ere, Antioquia, Norte de Santander, Santander, Cundinamarca, Boyacá, Huila, Tolima, Valle del Cauca eta Cesar. Zaurgarritasun-maila horiek nazio-biztanleriaren %65i eragin diezaiekete[9].

Edateko urik ezak 10 milioi kolonbiarri baino gehiagori eragiten die, eta 20 bat milioi pertsonak ez dute saneamendu-zerbitzurik. Ondorioz, urak eragindako gaixotasunak lehen postuan daude estatuan[10]. Kolonbiako herri nagusien %5-10ek baino ez du egiten tratamenduren bat hondakin-urekin. Egoera hori azaleko eskaintza hidrikoaren kalitatearen asaldura-iturri nagusietakoan ageri da.

Egungo narriaduraren beste adierazle bat da Andeetako basoetan eta eremuetan gizakiak egindako esku-hartzea. Ekosistema estrategikoek baliabide hidrikoak jaso eta biltzen dituzte, eta emarien erregulazioari eusten diote.

Bestalde, gauzak hain modu dramatikoan ez ikusteko, Planeazioko Departamentu Nazionalaren (DNP) informazioari jarraiki, esan dezakegu bizitza-kalitatearen indizeak gora egin duela; 1985ean %60,2 zen, eta 2000n %75,7. Indizea igotzeko arrazoi nagusiak hauek dira: ur-hornidurak gora egitea (4,8tik 6,3ra), zaborrak biltzea (1etik 5,1era) eta gela bakoitzeko pertsonak (5,8tik 10,9ra). Horrek esan nahi du bizitza-kalitateak gora egin duela urari eta sanea-

---

[8] IDEAM, *Kolonbiako uraren kudeaketari buruzko informe nazionala*, 2000ko urtarrila.

[9] RODRIGO MARÍN RAMÍREZ, Ob. cit. 33. or.

[10] Ibidem 29. or.

menduari dagokienez, oinarrizko zerbitzu publikoak hobeto estali direlako. Landa-eremuko bizitza-kalitatea askoz baxuagoa da oraindik eremu horietan herri nagusietan baino, eta distantzia handiak ageri dira oinarrizko zerbitzuen estaldurari dagokionez.

2003an Zerbitzu Publikoen Superintendentziak Kolonbiako uraren kalitatea kontrolatzeko egindako txostenak dioenaren arabera, guztira ebaluatutako 231 udalerritatik %18ri gizakiak kontsumitzeko egokia zen ura eman zitzaion, hau da, 189 udalerrik edateko modukoa ez zen ura jaso zuten, hots, %82k. Guztira ura jaso zuten 23.908.989 pertsonatik 8.187.542ri edateko modukoa ez zen ura eman zitzaien. Biztanleria osoaren %34 da hori. Duela gutxi Herriaren Defentsariak aurkeztu duen ikerketak (2005) Superintendentziaren datuak berresten ditu (2003).

Errepublikako Kontraloria Nagusiak, bere txostenetan, "2001eko Kolonbiako Ingurumen eta Baliabide Naturalen Egoeraren Profilarekin" batera, sei ingurumen-arazo garrantzitsu ezarri zituen ur-baliabideetan[11] 1. Sedimentu ugari, deforestazioaren eta lur-narriaduraren ondorioz. 2. Kutsadura handia, etxeetako hondakin-urek sortua. 3. Etxeetako zaborrak gaizki antolatuak izatea. 4. Pestizidak erabiltzearen ondoriozko kutsadura handia. 5. Kutsadura handia, industriako hondakin-urek sortua. 6. Industriako zaborrak gaizki antolatuak izatea.

Herrialdean ura kontserbatzeko lurraldea okupatzeko ereduan aldaketak egin behar dira, baita beste faktore batzuetan ere; klima-aldaketek, esaterako, egun herrialdeak duen ur-narriadurarekin lotutako krisia eragin du[12].

IDEAMek, uraren gaineko ikerketa nazionalean, kalkulatu zuen 5.461.574.000 metro kubiko ingurukoa dela egungo ur-eskaera, 2015erako 7.823.314.000 metro kubikokoa izango dela aurreikusi zuen, eta 2025erako, berriz, 10.114.007.000 metro kubikokoa. Horrek esan nahi du herrialdeko ur-eskaera osoa bikoiztu egingo dela XXI. mendearen lehen laurdenean, orain arteko goranzko joerarekin jarraituz gero behintzat.

Hori horrela, 2003an, 7.435 milioi m^3 aurreikusi ziren jarduera sozioekonomikoak garatzeko; horietatik 2.142 etxeko erabilerarako ziren, 4.053 nekazaritzarako,

---

[11] ERREPUBLIKAKO KONTRALORIA NAGUSIA, *Kolonbiako edateko uraren kalitateari eta kantitateari buruzko inkesta*, *Baliabide naturalen eta ingurumenekoen egoeran*, 1995eko txostena.

[12] JUAN CAMILO MIRA, *Kolonbian ura ondasun publiko gisa defendatzeko politika publikoak, ekintzak eta antolaketa-moduak modu parte-hartzailean eraikitzea eta ezartzea, oinarrizko lerro nazionala.* Ura ondasun publikotzat hartzeko nazio-kanpaina, ECOFONDO, 2006.

942 industria-erabilerarako, 229 abeltzaintzarako eta 69 zerbitzu-jardueretarako. Etxeetako ur-eskaera osoaren %71,5 hirietako eremuak dira (1.532 milioi m^3), eta landa-eremuak %28,5 (610 milioi m^3). Honako hiri hauetan izan zen eskaerarik handiena: Bogota, Cali, Medellín, Barranquilla eta Cartagena; herrialde osoko etxe-eskaeraren %29,6 ordezkatu zuten (635 milioi m^3).

Kolonbiako egungo egoera eta uraren eskaintza-eskariaren joerak kontuan izanda, Andina eta Karibe dira zaurgarrienak. Zaurgarritasuna handitzeko joera dago, eta indize kritikoak dituzten eremuak agertzekoa. Izan ere, kutsadurak eragindako narriadura-prozesuak aurrera egingo du epe ertainean, ziklo-eraginaren ondorioz eskaintza murriztuko da, eta eskaera etengabe igoko da.

Inbertsio portzentaia edateko urean



Uraren arazoa sakonago ikusteko, edateko uretan nazio-aurrekontuetan egiten den inbertsioa kontuan izan behar dugu.

"Legegintzako 10 urteetako sektorekako inpaktua Kolonbian, etxez etxeko zerbitzu publikoen esparruan"[13] izeneko dokumentuaren arabera, edateko urari eta

[13] RODA, P., *Legegintzako 10 urteetako sektorekako inpaktua Kolonbian, etxez etxeko zerbitzu publikoen esparruan*, SSPD dokumentu-bilduma, 2004.

oinarrizko saneamenduari dagokienez atzeratuta egotearen arrazoietako bat herrietako administrazioen jarrera da; babes politikoa izatearren, tarifa baxuak jartzen dituzte, eta, ondorioz, estaldurak handitzeko eta zerbitzuaren kalitatea ziurtatzeko, ezin izaten dute baliabiderik sortu. Beraz, erabiltzaileei zaila egiten zaie tarifa-igoerak onartzea eta maila baxuko zikloa ixtea.

Badira beste kausa argi batzuk ere; maila zentraletik akueduktuei eta estolderiari eskaintzen zaizkien aurrekontu baxuak, sektorearen planifikazio eskasa edo baliogabea, oraindik administrazioetan dagoen ustelkeria, eta hirietako biztanleria-kontzentrazio bizkorra; hainbat arrazoi direla medio, etxeetako edateko uraren eta oinarrizko saneamenduaren eskaria asko igo da.

Gobernua edateko uretan gehiago inbertitzen hasi zen 80ko hamarkadaren amaieran. Konstituzio Nazionalak instituzio berriak eta deszentralizazioa sartu zituen, eta balio horren gastua asko igo zen; gehiengoa 1993an lortu zuen, eta, gero, gastu sozial nazionalaren %1,5 eta 2,5 artean egon zen[14]. Inbertsio publikoak gora egin du, erregulazio zorrotza dago, merkatuek askatasuna dute, baina oraindik ere edateko modukoa ez den ura erabiltzen dute gehienek. Gainera, gai horri dagokion politika publikoak tarifak igotzea sustatu du (CRA araudia). Tarifak igotzeak erabiltzaileen kontsumoa murriztu du; lehen, bakoitzak 25 m^3 inguru kontsumitzen zuen hilean, eta orain, batez beste, 20 m^3 baino gutxiago.

Uraren problematika Valle del Caucan

Valle del Cauca herrialdearen mendebaldean dago, mendikate nagusiaren mendebaldeko hegalaren eta Ozeano Barearen artean. Bi lurralde natural handik osatzen dute, Ozeano Barearen isurialdeak eta Cauca ibaiaren arroak.

Bailarak 4.532.378 biztanle eta 42 udalerri ditu guztira, eta Cali da hiriburua. 2003an, akueduktuaren batez besteko zerbitzuak %96,6 estali zuen, eta hori herri nagusietako 3.177.135 biztanleen onerako izan zen.

Valle del Caucak Caucako eta Ozeano Bareko arro hidrografikoetan sostengatzen ditu bere beharrizan hidrikoak, eta horien mende daude, gutxi gorabehera, 4.250.000 biztanleko herria eta eremu horretako nekazaritza-industria nagusia: azukre lantegia, hain zuzen. Departamenduko labore guztien %73 ordezkatzen

[14] ERREPUBLIKAKO KONTRALORIA NAGUSIA, *Kolonbiako edateko uraren kalitateari eta kantitateari buruzko inkesta, Baliabide naturalen eta ingurumenekoen egoeran*, 1995eko txostena.

du, eta eskaintza hidrikoaren %86 kontsumitzen du. %30eko eraginkortasuna soilik du ureztatzea erabiltzean; horregatik, ekintzak aurreratzen ari dira enpresa-praktika arduratsuak ezartzeko.

Baliabidearen eskaintza integralari dagokionez, Caucako arro hidrografikoan ez dago alderdi oso kritikorik, baina badago aldi baterako desoreka neguko eta udako aldien artean. Litekeena da hori larriagotzea eskaera etengabe haziz gero, egun dagoen zakarreria-kulturarekin jarraitzen bada. Emari hidrikoak erregulatzeko estaldura begetalak desagertzeaz gain, bilketa-lan desegokiak ezarri dira, baliabidea erabiltzean gutxiegi balioetsi da, eta erregulatzeko mekanismorik nahiz kontrolik ez da egon ura kontsumitzean. Ondorioz, baliabideari kalte egiten dioten gero eta praktika gehiago daude, konpentsatzaileak, zentzagarriak eta berreskuratzekoak.

III. Pribatizaziorantz

Ura izateko eskubidea

Ura oinarrizko beharra da; beraz, izaki bizidun guztien eskubidea eta ondarea da, eta ez gizakiena soilik. Pertsona guztiek dute ura izateko eskubidea: nahikoa ur izan behar dugu, edatekoa, onargarria, eskuragarria, norberaren erabilerarako nahiz etxerako[15].

Dublingo Adierazpenak 1992an onartu zuen gizakiaren osasunerako eta ongizaterako funtsezko eskubidea dela edateko ura eta saneamendu egokia izatea; halaber, aipatu zuen oinarrizkoa dela garapen jasangarria lortzeko, batez ere, pobrezia eta gosea amaitzeko eta ekosisteman oreka lortzeko. Gizakiak ura izateko duen eskubidea errespetatzea ezinbestekoa da duintasunez bizitzeko; beste giza eskubide batzuk gauzatzeko, berriz, aurretiko baldintza da[16].

Erroman 2003an egin zen Uraren Munduko I. Foroko Aitorpenean honela berretsi zen: "Ura, giza eskubide unibertsala"[17]. Ura gizateriaren eta izaki bizidun guztien esku dagoen ondasun komuna dela azaltzen du. Hori horrela, II. Foroko Aitorpena Genevan egin zuten, eta munduko uraren estatutu bat eskatzeko deia egin zuten; beste zenbaiten artean, "uraren zikloaren globaltasuna kontuan hartzeko" auke-

---

[15] RODRIGO MARÍN RAMÍREZ, *El agua un derecho intransferible*, Kimpres Ltda., Bogota, 2004ko azaroa.

[16] ANTIOKIAKO UNIBERTSITATEA, *Para vivir con dignidad: acceso universal al agua, Dbts.* aldizkaria. 40. zk.

[17] 2003ko abenduaren 10ean, giza eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 55. urteurrena zela eta, Uraren Munduko Kontratuak "egun berezia" antolatu zuen Erroman. Gizarte zibila eta beste pertsonalitate batzuk ordezkatuz, nazioarteko parlamentario batzuek eta hango zenbait hautetsik adierazpenaren testua idatzi zuten.

ra eskatzen zuen. Foro horretan, lehen foroan lortutako adostasuna berretsi zuten, eta, horrez gain, uraren estatutua ondasun bateratua izatea, ura lortzeko finantziazio kolektiboa egitea eta maila guztietan uraren kudeaketa demokratikoa egitea defendatu zen. Foro horretako ondorioen arabera, uraz edozein ez jabetzeko premia ikusi zen, erantzukizun kolektiboa bermatzeko eta kudeaketa ziurtatzeko premia alegia, eta legezko botere politiko batean oinarritutako autoritate publiko batek arau demokratikoei jarraiki kontrolatzeko premia.

Munduko V. Gizarte Foroan sortu zen Porto Alegreko Plataformak ere baliabide hidriko bat baino haratago ezarri zuen ura. Ura gizakia baino lehenagotik zegoen, espezie guztientzat ezinbestekoa da, eta ez da hartu behar jabetzeko moduko baliabidetzat[18]. Plataforma horrek giza eskubidetzat hartu zuen ura, baina, horrez gain, ondasun publikotzat hartzeko beharra adierazi zuen, eta merkataritza-akordiotik atera (MLI eta beste batzuk) eta nazioz gaindiko enpresen pribatizazioa saihestu behar zela esan zuen. Nazioarteko finantza-instituzioen politikak zalantzan jarri zituen foroak, eta ura naturan uzteko deia egin zuen. Generoaren eta talde kaltetuenen gaiak nabarmendu zituen, eta munduko mugimendu handi batean elkartasuna zabaltzea eta batasuna eraikitzea bultzatu zuen.

Horiek horrela, M. Gubiottik hau baietsi zuen: "ura oinarrizko giza eskubidetzat hartzen badugu, iraultza kopernikar bat eragin dezakegu. Iraultza hori planetaren etorkizunari begira egingo da, baita politikaren oinarriak eta zentzua eraikitzeari begira ere, politika guztion ongizatea lortzea bada behintzat. Teorian eta praxian logika nagusiak leheneratzea bultzatzea komeni da, merkataritza-ondorioak dituen jabetza-eskubidearen zentraltasunetik guztion ondasuna modu berean eta egokian eskuratzeko eskubidera igarotzeko. Halaber, kontuan izan behar da gure herrialde aberatsetan zerbitzuen pribatizazioaz hitz egiten dugunean ez ditugula buruan ondasunak hornitzean inbertitzen duen pribatua eta abar. Baina gaur bultzatutako noranzkoari jarraitzen badiogu, datozen 15 urteetan, Europako eta Ipar Amerikako zerbitzu hidrikoen %65 hiru multinazionalen esku egongo da, bi Frantziakoak eta bat Alemaniakoa. Beraz, monopolioaz ari gara"[19].

Bestalde, Milurtekoko Helburuei buruzko ikuspegi politikoagotik begiratuta, ALBOANek hau dio: "Milurtekoko Helburuak giza eskubideen esparruan ulertu

[18] Porto Alegreko Munduko V. Gizarte Foroko Adierazpena.

[19] MAURIZIO GUBBIOTTI, *Agua, conflicto y democracia en el mundo actual*, Erroma, 2006. Italiako Legambienteko kidea. Jairo Miguel Guerraren itzulpena.

behar dira, eta, horregatik, ekintza-plan baten barruan sar daitezke, hain zuzen, eskubide ekonomikoak eta sozialak etengabe gauzatzen joan daitezen. Era berean, gobernuei exijitzeko arrazoi izan behar dute... Milurtekoko Helburuak baliagarri dira, pertsona eta herri guztientzako giza garapenaren, justiziaren eta duintasunaren ikuspegi zabalagotik begiratzen badiegu; azken finean, garapenari buruz hitz egitean, nazioarteko 'hizkuntza' dira"[20].

Ura izateko giza eskubidea guztiz gauzatzeko, Estatuak obligazioak bete behar ditu, batetik, eskuduntza duten agintarien bidez, eta, bestetik, biztanleria guztiak ura ondo kudeatuta, babesteko eta gordetzeko, nazioko biztanle guztientzat eskuragarritasun, irisgarritasun eta kalitate egokia bermatzeko.

Kolonbiako Konstituzio Politikoak bizitza-eskubidearen bortxaezintasuna adierazten du, eskubide unibertsaltzat, funtsezkotzat eta sakratutzat hartzen delako, eta besteen eta Estatuaren aurrean babesteko berezko balioa duelako. Akueduktu- eta estolda-zerbitzuak ez dira eraginkorrak, batez ere, edateko urari dagokionez, eta hori oso mehatxu larria da herri batzuentzat; nagusiki, arauak ezarritako onargarritasun-parametroak betetzen ez dituen ura dutenentzat.

Kolonbiako Estatuak, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Itunaren barruan, halabeharrez aztertu behar du uraren gaineko politika publiko osoa: legeria, erregulazioa, estrategiak, garapen-planak, gizakiak ura izateko duen eskubideari dagozkion obligazioak betetzen direla zehazten duten programak eta aurrekontuak. Zerbitzuak ematea baino haratago doa hori guztia. Horrez gain, edateko ura hornitzeak modu positiboan eragiten du beste eskubideetan ere, eta muturreko pobrezia kentzen laguntzen du, elikatzeko ziurtasuna bermatzen du, gakoa da herriaren osasunean eta hezkuntzan, eta garapen jasangarria ziurtatzen ere laguntzen du.

Estatuaren eta partikularren obligazioei jarraiki, ikusi dugu ura edangarri egitea eta tratatzea helburu duten legeak ez direla betetzen, eta horrek esan nahi du babes-obligazio hori, oro har, ez dela betetzen. Berrikusi beharra dago zein diren premiaz bete beharreko obligazioak, eta zein etengabe bete beharrekoak, Kolonbiak beste 191 herrialderekin batera Nazio Batuen Batzar Nagusian onartu zituen milurtekoko helburuak betetzearen alde egiteko. Batzar Nagusi horretan, beste gauza batzuen artean, edateko urik ez duten pertsonen kopurua erdira

[20] ALBOAN, *Milurtekoko Garapen Helburuak. Aldaketarako tresna edo garapena beherapenean?,* ALBOAN aldizkaria, Bilbo, 2006ko martxoa.

murriztea bultzatu zuten; xede horiek, ustez, 2015erako betetzekoak ziren herrialdeko udalerri guztietan.

Ura erregulatzen duten arauak zorrotz betetzea ezinbestekoa da. Ur gutxi dago, ordea, eta milioika pertsonaren bizitza eta osasuna arrisku larrian daude. Edangarritasunaren parametroak betez gero, asko murriztuko dira gaixotasun batzuk, beherakoa eta kolera, besteak beste, horiek jatorri hidrikoa baitute; halaber, laborantzan eta abeltzaintzan errendimendua handituko da, eta herrialdean bakea eta garapena lortzen lagunduko du horrek. Ezinbestekoa da herritarren ongizate soziala hobetzea, garapen ekonomikoaren alde egitea eta baliabide naturalei erabilera arrazionala ematea.

Arazoa ez da agintariena soilik. Enpresa pribatuek eta gizarte zibilak, jarduerak garatzean, kontuan izan behar dute oso garrantzitsua dela ura gordetzea eta zaintzea, baita saneamendu egokia ziurtatzea ere. Ura defendatzeko eta babesteko edozein ekintza, oso txikia izanik ere, oso garrantzitsua da komunitatearentzat, herrialdearentzat eta munduarentzat.

Ura eta elikadura-segurtasuna

Teknikariak aspalditik ari dira eztabaidatzen Lurrak gero eta giza populazio handiagoak jasateko gaitasunik baduen. Lurrak sor al lezake 8.000 milioi pertsonarentzako janaria? 10.000 milioirentzako? Orain ikusten dugu ura izan daitekeela etorkizuneko elikagaien ekoizpena mugatu dezakeen faktore nagusia. Baliabide eskas horrek etengabe aurre egin behar die mota guztietako eskari gogorrei eta jasanezinei, eta, uraren erabilerari dagokionez, nekazaritzako ekoizleek gero eta lehia handiago dute hirietakoekin eta industrietakoekin. Uraren ingurumen-erabilerak izan daitezke uraren eskaintzaren jasangarritasuna ziurtatzeko gakoak, baina askotan ez zaie batere jaramonik egiten.

Gero eta ur gutxiago dago munduan, eta eskaria, berriz, azkar handitzen da; horrek arriskuan jartzen du elikaduran produzitzeko ura eskuragarri izatea, eta munduko elikadura-segurtasuna bera ere kolokan dago horren ondorioz. Gero eta biztanle gehiagoren janaria dago laborantzaren mende, eta industria-, etxe- eta ingurumen-erabileretarako ur-hornikuntzarekin lehian ari da. Erabiltzaile guztien ur-eskaria gora egiten ari den heinean, lur azpiko ura gastatzen ari da, ur-ekosistema guztiak kutsatzen eta narriatzen ari dira, eta gero eta garestiagoa da ur-baliabide berriak garatzea.

1995ean, mundu osoan, 3.906 kilometro kubiko ur atera ziren. 2025erako, askotariko erabileretarako (etxeetarako, industriarako eta abeltzaintzarako) ur gehiago ateratzea proiektatu da. Horrek asko mugatuko du ureztatzeko ura ateratzea (%4 soilik haziko da), eta, era berean, elikagaiak ekoiztea mugatuko da. Egun, mundu osoan, 250 milioi hektarea ureztatzen dira. Ureztatzeari esker, laborantzako ekoizpena eta errendimendua handitu dira, eta elikagaien salneurria eta produkzioa egonkortu. Ureztatzeari dagokionez, lorpen handiak egin dira. Alabaina, herrialde askotan, erabilera okerrak asko murriztu ditu lur azpiko uren kotak, kaltetu egin die lurrei eta uraren kalitatea murriztu du[21].

"2025era arteko uraren munduko egoera. Nola saihestu berehalako krisia" izeneko IFPRI (International Food Policy Research Institute) txostenak dio 2025erako ureskasiak urtean 350 milioi tona kubikoko galerak eragingo dituela elikagaien produkzio arinean. Beste era batera esanda, horrek esan nahi du etorkizunean elikatzeko mugaren faktore nagusia ura izango dela. Eragin gogorrena pertsona txiroenek jasango dute. Hala ere, ura baliabide eskasa izan arren, baliabidea modu eraginkorragoan erabiltzeko modu asko ere garatu ditu gizakiak. Baina, alferrik dira ura aurrezteko politikak, teknikak eta teknologiak, praktikan jartzen ez badira[22].

Egungo elikagaien eta uraren eskaintza eta eskariaren eredua kontuan izanda, egun munduan dauden uraren gaineko politikek jarraitzen badute, laborantza-ekoizleei benetan zaila izango zaie elikaduran egongo diren beharrak asetzea. Ondorioz, beti bezala, eragin gogorrena pertsona txiroenek jasango dute, eta, berriz ere, alde batean geratuko dira.

Uraren pribatizazioa

Ura, objektiboki begiratuta, ondasun natural komuna da, ezinbestekoa eta ordezkaezina. Garai historiko honetan, ekoizteko modu nagusia globalizatuta dago, eta ia guztia merkantzia transformatzen da, baita sakratua eta ezinbestekoa dena ere. Giza eskubide besterenezinak giza beharretara jaisten dira. Horiek asetzeko, eskaintzaren eta eskariaren legeak bete behar dira, merkatuarenak. Ordain dezakeenak soilik ditu eskubide horiek, kontsumitzaile denak, eta ez pertsona denak, haren egoera ekonomiko-soziala alde batera utzita. Modernitatearen ideiei traizioa egin zaie[23].

---

[21] NBE, *Baliabide hidrikoen garapenari buruzko txostena: "Ura guztiontzat, ura biziarentzat"*.

[22] JUAN CAMILO MIRA, *El agua en Colombia -La complejidad de los ecosistemas enfrentadas la simplicidad de las políticas públicas,* ECOFONDO, Bogota, 2006.

[23] LEONARDO BOFF, *La Guerra del Agua*, Koinonia aldizkaria.

Bi postura eta ikuspegi aurkeztu dira "uraren krisiaren" aurrean, eta bakoitzak bere joerak ditu. Joera neoliberalagoak arazoa negozio handi baten aukera gisa ikusten du, eta, "eskasiaren" nahiz "eraginkortasunaren" argumentuarekin, uraren eta baliabideen pribatizaziorantz egiten du. Horretarako, bere proposamenak errazteko, legeria aldatzea sustatzen du. Bestalde, mugimendu alternatiboek bultzatutako korrontea dago, batez ere popularrek bultzatua. Haiek Uruguaiko azken plebiszituan eta Bolibiako herri-mugimenduan inspiratu dira. Korronte horretan, uraren gaineko kezka hornikuntza-gabeziara, eskubide desberdintasunera eta pribatizazioaren arriskuetara bideratuta dago, eta, horregatik, ura izateko eskubidea giza eskubidea dela nabarmentzen da, eta ezinbesteko likidoa ondasun komuna dela; ideia hori ondo justifikatuta dago, eta gure esperientzia eta praktikatik partekatu egiten dugu.[24]

Argi dago munduan bi posizio horiek daudela uraren gainean. Batzuek uste dute ura gizakiaren beharra dela, eta pribatizazioa eta komertzializazioa defendatzen dute, eta beste batzuek, aldiz, uste dute ura giza eskubidea dela, eta ez dute onartzen trataera komertziala ematea. Biztanleriaren kontsumoa asetzeko beharra eta garapenaren nahiz nazioarteko ur-eskariaren beharra asetzea aurrez aurre daude, eskuragarritasun askea eta pribatizazioa sustatuta.

Ingurumenaren aldeko mugimenduak planteatzen du "uraren krisia" ingurumen-krisiaren espresioetako bat dela, egun lehenetsita dagoen eredu sozialak eta ekonomikoak sortua. Hala, uste du ez dela milurtekoko helburu pragmatikoa lortuko, hau da, ez dela erdietsiko "2015erako edateko ura modu jasangarrian eskuratzeko aukerarik eta saneamendu-zerbitzurik ez duten pertsonen kopurua erdira jaistea", eredua sakonean eztabaidatzen ez den bitartean eta hura aldatzeko prozesuak aurrera egiten ez duen bitartean. Horrek esan nahi du bestelako aukera jasangarriak eraiki behar direla[25].

Ur-eskasiaren ikuspegia erreala da, baita etorkizunean ura dela-eta gerrak izan daitezkeela ere. Eta, "eskasiaren diskurtsoarekin" batera, ura merkataritzan erabili nahi dutenentzako aukera sortu da; ura kontrolatzeko eta beren jabetzako bihurtzeko aukera dute. Krisia negozio egin nahi dute. Horregatik, gero eta

---

[24] RAFAEL COLMENARES, *El Agua: un bien público, Razones para una campaña*, ECOFONDO, 2006ko iraila.

[25] Alternatibak eraikitzerakoan eta uraren izaera publikoaren oinarriari dagokionez, hiru irizpide izan behar dira kontuan: a) ekoizpen-sistemetan ahalik eta ur gutxiena sartzea; b) sisteman ahalik eta ur-baliabide gehiena sartzea; c) sistematik ateratzen den ura garbia edo tratatua izatea.

enpresa multinazional gehiagok inbertitzen dute uraren negozioan; urarekin, 1.000 milioi dolar irabazi nahi dute 2005erako.

“Eskasia” hori pribatizazioak defendatzen duen diskurtsoaren arrazoia eta argumentua da, eta ura eskuratzea negozio egin dute. Errealitate horretan oinarrituta, balio ekonomikoa gehitzen diote, eta kontsumitzailearentzako garestiago jartzen dute; hala, etorkizunerako alde batera uzten dituzte ordaindu ezingo duten pertsona guztiak. Egun, uraren zerbitzua ordaintzen dugula uste dugu, baina, benetan, uraren merkantzia ari gara ordaintzen askotan. Arazoa ez da eskasia, zaintzea baizik.

Pribatizazioak esan nahi du baliabide hidrikoen administrazioa eskasiaren eta mozkin errentagarrien optimizazioan oinarritzen dela, eta ez etorkizuneko aspektu jasangarrietan. Eta agentzien onurak kontsumoa haztearen menpe egongo dira etengabe; beraz, proiektu berrietan inbertitzeko prest egongo dira –esaterako, itsasoko ura edateko moduko egitea eta ur-esportazioak desbideratzea–, ez baitzaie interesatzen kontserbatzea.

70eko hamarkadaz geroztik, “petrolioaren jauntxoak” dira “munduaren jabe”; hogei urte barru, aldiz, “uraren jauntxoak” izango dira jaun eta jabe, eta Ipar Amerikako eta Frantziako multinazionalak egongo dira lehen postuan: Coca-Cola, Vivendi, Lyonnaises des Eaux, Nestlé, Danone eta abar.

Ura merkatu zabala, errentagarria eta segurua da, petrolioa baino gehiago, betiere kontuan hartzen badugu, adibidez, galoi bat urek galoi bat gasolinak adina edo gehiago balio dezakeela, eta benetako ekoizpen-gastuak oso desberdinak direla: “Ura urtean 400.000 milioi dolarreko negozioa da, petrolio-negozioaren %40, eta farmazeutikoen negozio globala baino heren bat handiagoa”[26]. Ura oinarrizko elementua da, eta, kontrolatzen badute, bizitza kontrolatuko dute, bai manifestazio fisikoetan bai politikoetan.

Botilaratutako uraren merkataritza industria zabalduenetakoa da: 70eko hamarkadan, urteko bolumena 900 milioi litrokoa zen, eta, hamarkadaren amaierarako, mundua botilaratutako sei mila milioi litro ur kontsumitzen ari zen urtean. Botilaratutako uraren merkatua, batez beste, %20 handitzen da urtean. Hala ere, multinazionalen interesik handienak banaketan eta oinarrizko saneamenduan kontzentratuta daude egun.

---

[26] Fortune aldizkaria 2000, Krusek aipatua, 2002.

Horrexegatik, hain zuzen, egun, lasterketa frenetikoa dago multinazionalen artean ura pribatizatzeko, baliabide hidriko bilakatzeko eta merkantzia horrekin diru asko ateratzeko. Ura gizakiaren oinarrizko eskubidea delako ulermen humanistikoa eta etikoa suntsitu dituzte. Beste edozein beharrizan bezala ikustea lortu dute, eta hori lortzeko merkatura jotzea. Horixe adierazi zuen Munduko Uraren Bigarren Foroak 2000. urtean: ura jada ez da eskubide besterenezina, gizakiaren beharrizan hutsa da[27].

Laburbilduz, ura eta haren baliabideak (atera berriak eta berriz kargatutakoak), hornidura-sistemak (akueduktuak, kasu), biltegiratzeko eta tratatzeko plantak, banaketa eta abar kontrolatzera bideratutako ekintza-multzoa da uraren pribatizazioa, eta mozkin partikularrak ateratzea da hori aurrera eramaten duten enpresen xedea, eta ez pertsona guztiek ura eskuragarri izatea. Beraz, pribatizazioak ura merkantzia soil bilakatzen du, irabazi pribatuak jasotzeko, eta hori ez dator bat ura giza eskubide besterenezintzat hartzearekin, pertsona guztiek eskuratzearekin eta banaketan elkartasunaren printzipioa izatearekin.

Munduko kapital pribatuaren kontrol hegemonikoari esker, *"baliabide naturalen geopolitika"* delako metaketa-lerroa sortu da; natura merkataritzarako erabiltzen da, planetako sistema hidrikoak merkaturatzera bideratutako politikak dira. Politika horiek erabili dira hiri handietako hornidura- eta saneamendu-azpiegitura askoren pribatizazioan.

Pribatizazioaren politika gobernuek, enpresa pribatu nazionalek eta nazioz gaindikoek, nazioarteko finantza-organismo batzuek eta gobernuz kanpoko erakundeek edo herri-erakundeek babesten dute, betiere enpresa pribatuek eta Nazioarteko Finantza Instituzioek finantzatutakoek (horien artean, Munduko Bankua). Azken horrek lehentasuna eman dio zerbitzuak pribatizatzeari, eta etorkizuneko maileguetarako baldintza izatea exijitu du. Ura pribatizatzea eta/edo diru-laguntzak kentzea herrialdeko akordioen %30en baldintza izan zen 2000. urtean, eta akordioen %40rena 2001ean.

Arazo horien aurrean, interesak bateratu egin ziren; batzuek herritarrentzako ur-eskubidea eta balioa bermatu nahi zuten, eta, beste batzuek, berriz, eskasiaren fantasma aprobetxatu, eta irabaziak ateratzeko negozioa egin nahi zuten.

---

[27] LEONARDO BOFF, *La Guerra del Agua*, Koinonia aldizkaria.

Ura gizateriaren eta izaki bizidun guztien ondasun gisa, hau da, merkatuan erabili ezin daitekeen ondasun unibertsal gisa, ikusten dute egun hainbat herri-erakundek, mugimendu sozialek, GKEk, elizak eta borondate oneko pertsonak, eta guztiek ere argi ikusten dute sistemak pribatizazioen gainean ezarritako tranpa. Hori horrela, batzuek "uraren nazioarteko parlamentua" defendatzen dute, edo "urari buruzko munduko kontratua", ura despribatizatzeko[28].

Eztabaida horretatik ateratzeko modu bakarra dago; hain zuzen, kontuan izan behar da gure ikuspegia, baita zer interesekin gabiltzan ere. Kasu honetan, funtsezkoena izango da ura, giza eskubidetzat hartzeaz gain, bizitza-izaeran eta izaera sakratuan hartzea, nahiz eta batzuek pentsatu antigoalekoak, antimodernistak, aurrerapenen kontrakoak edo erromantikoak garela. Ura defendatzerakoan, ez dugu ikusi behar balio ekonomikoa duen zerbait, bizitza bera baizik, eta, hala, aukera izango dugu lurra-ura planeta etorkizuneko belaunaldientzat salbatzeko.

Horrexegatik, eta ondorio gisa, ez dugu utzi behar ura merkantziatzat hartzen, ez eta planetako baliabide hidrikoak Munduko Bankuaren eta Nazioarteko Moneta Funtsaren ereduaren arabera gestionatzen ere; horiei esker, egun, 30.000 pertsona hiltzen dira edateko ur faltak eragindako gaixotasunengatik edo osasun-zerbitzurik ez dutelako.

Baso eta uren gaineko legeak Kolonbian

Inposatutako politika neoliberaletako pribatizazioen esparruan, aipatu beharrekoak dira Kolonbiako Basoen Legea (2004ko 25. Legea) eta Uraren Legea (2004ko 365. Legea); Gobernu Nazionalak Errepublikako Kongresuan aurkeztu zituen. Bi proiektuek eragin zuzena dute kolonbiarren ingurumen-ondarean, eta zalantzan jartzen ari dira, justifikatzeko argumentuak ez baitira argiak; badago kezka bat Ameriketako Estatu Batuen Merkataritza Askearen Itunean izan dezakeen zerikusiaren gainean.

Basoen Legeari dagokionez, berriz, hau esaten da: "proiektu horrek atzera egiten du Kolonbiako ingurumen-politikan, ez baitu laguntzen basoak kontserbatzen, deforestatzea bultzatzen baitu eta basoen eta ondare naturalen pribatizazioari bidea irekitzen baitio. Horretarako, ingurumen-zerbitzuak saltzen ditu, beltzen

[28] ALFREDO FERRO, *El agua, fuente bendita de vida – Aproximación a una teología, espiritualidad y pastoral del agua*, Feriva argitaletxea, Cali, 2006.

eta indigenen komunitateei aitortutako eskubide kolektiboak urratzen ditu, bortxatutako lekualdatzeen bidez lur tradizionalak besterentzen ditu eta parke naturalen zerbitzu turistikoak sektore pribatuari ematen dizkio, besteren artean. Ekintza horiek guztiek arrisku larrian jartzen dute herrialdea eta milioika pertsonaren bizitza eta segurtasuna[29]. Horrez gain, hau ere planteatzen da: «legeak bi kontzeptu oso desberdin barne hartzen ditu: baso naturalak eta basoetako landaketak; funtzio biologikoa eta ondasunak nahiz ingurumen-zerbitzuak produzitzeko funtzioa baino ez ditu aitortzen bientzat»".

Kontuan hartzen badugu ekosistemek dinamika integralak dituztela eta hosto bat erortzeak ere eragina duela multzoan, orduan ulertuko dugu basoen legeak uraren kontserbazioan eta eskuragarritasunean izan dezakeen eragina, baita ekosistema horiekin kulturaren bidez lotuta dauden komunitateetan izan dezakeena ere.

Uraren Legeak ere ematen ditu kezkatzeko arrazoiak; izan ere, ikusi da ez dela ematen arrazoi argirik "Uraren Legea" zertarako behar dugun azaltzeko; ez da argi ikusten zergatik banandu behar den gai hori Baliabide Naturaletarako eta Ingurumena Babesteko Kodetik. Hala, beste oinarrizko elementu batzuekin batera (atmosfera eta lurra, esaterako) lantzen da, eta aparte aintzat hartzen da, gai hori jorratzeko erabili behar den osotasunaren kaltetan. Halaber, Legea beharrezko egin duen egoera berria zein den azaltzean ere, agerpena ez da sendoa[30].

Analistak kezkatuta daude legea egiterakoan kanpoko interesek izan dezaketen eraginaz, atzerritarrek ura kontrolatzeko pisu juridiko bat bermatzea nahi balute bezala; izan ere, badakigu "Kolonbiako lurraldean planetako ur gezaren azken erreserbetako bi daudela, Andeak eta Amazonia, hain zuzen (Andeetako eskualdeak eta Brasilek planetako ur gezaren %20 dute), eta horiek estrategikoak dira Lehen Munduko herrialdeentzat, betiere kontuan hartzen badugu herrialde horietan ez dagoela erreserba handirik eta akuifero asko kutsatuta daudela[31].

---

[29] LUCÍA VÁSQUEZ CELIS, A*cerca del proyecto de Ley Forestal de Colombia*, Mimeografiatua. 2005.

[30] RAFAEL COLMENARES LEÓN, *Uraren Lege-proiektuari buruzko aipamenak*, Mimeografiatua. 2005.

[31] Martha Alicia Duque, INDEPAZ Talde Akademikoko ekonomista eta abokatua, "Biodibertsitate-baliabideak, azken mehatxua", *Le Monde Diplomatique* egunkarian argitaratutako artikulua, III. urtea, 28. zk., 2004ko urria: "Ipar Amerikan, uraren egoera larritik kritikora artekoa da. Ameriketako Estatu Batuek ibaien eta lakuen %40 kutsatuak dituzte. Estatu Batuetako biztanleen erdiak lur azpiko uraren menpe bizi dira. Egun, Estatu Batuek lur azpiko uraren defizit handia dute; hain justu, 13.600 milioi metro kubikokoa. Bestalde, Ameriketako gainerako lurraldeek munduko biztanleriaren ehuneko 12 dute, eta edateko uraren azaleko eta lur azpiko erreserben ehuneko 47, Latinoamerikan, batez ere, Amazonian eta Guarani akuiferoan (Brasil, Uruguai, Paraguai eta Argentina). Estatu Batuak gainean dituzte".

Lege-proiektu horren atzean, uraren pribatizazioaren mehatxua ere badago; izan ere, eskari handia dagoenez, irrika handia eragiten du, eta, ondorioz, munduko merkatuan, merkantzia gutiziatua da, bai zerbitzu publiko gisa, bai botilaratuta.

Onartzeko bidean den legeriarekin ageri den panoramaren aurrean, oso garrantzitsua da argi izatea guztion erantzukizuna dela ura ingurumenaren ondasun publikoa izatea, eta izaki bizidun guztiekin batera izateko eskubidea dugula jakitea, ekosistemen eta bizitzaren jasangarritasuna bermatzeko.

Ura Merkataritza Libreko Itunan (MLI)

MLIko akordio komertzialetako batean hitzartutakoaren arabera, ura "ondasuna" da, eta, beraz, ezin zaio oztopatu merkaturatzea, eta ezin zaie mugarik jarri inportazioari nahiz esportazioari. Ideia horretatik abiatuta, MLI barruan, pribatizazioa sortu nahi da; kasu honetan, urarena. Urari salneurria jartzen zaio, eta, pribatizatzea nahi dutenen arabera, horrek kontserbatzen laguntzen du, eta, hala, erabilera eraginkorragoa da.

MLIk baditu eragozpen batzuk, halako pribatizazioak eginez gero zailtasun batzuk agertuko bailitzaizkioke. MLIren proposamenaren barruan, ura merkataritzan erabil daiteke, eta horrek mugatu egiten die gobernuei erabiltzeko eta ustiatzeko moduak erregulatzeko aukera. Gobernu batek uraren ustiaketa kontrolatzeko arau bat exijituko balu eta inbertitzaile batek uste izango balu Gobernuak bere eskubideak urratu dituela, salatu egin ahal izango luke, eta, eztabaidak konpontzeko, nazioarteko arbitrajera joan.

Kasu horiek erakusten dute Kolonbian MLIk ez duela merkataritza-akordio bat soilik ordezkatzen, itunak jarduera ekonomiko guztiari buruzko nazioz gaindiko legeria bat jartzen dio herrialdeari, eta Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) berak baino arau gogorragoak ezartzen dizkio. Merkataritza askearen ereduan, merkaturatu daitekeen ondasun ekonomikotzat hartzen da ura, hau da, "zerbitzu" gisa, sektore pribatuko "inbertsio" eremu gisa. Hala, salerosketak egiteko ibilbidea hasten da, likidoa esportatzekoa, eta ezinbestekoa eta estrategikoa den baliabide natural baten pribatizazioa garatzekoa.

Urari dagokionez, merkataritza-akordio horiek alderdi batzuk zehaztu nahi dituzte; hala, baliabide hori jokoan jartzen dute, eta gizartean aldaketak eragin: 1) herrietako eta estolderietako ur-zerbitzuak zuzenean hartzea, enpresak erosita edo epe luzeko kontratuekin; 2) ur-baliabideak zuzenean kontrolatzea,

erosita edo emanda, eta botilaratzeko, ur-blokeak esportatzeko edota laborantzan ureztatzeko erabiltzea; 3) Epe motzeko merkataritza-gestioen kontratuak edo epe motzeko kontratu operatiboak egitea; horietan tarifak bilduko lirateke, eta herriei alokairua kobratu edo lanaren portzentaje bat jaso.

Gizartean ur-zerbitzua hornitzean, erabiltzaileak ordaintzeko dituen aukerak hartzen dira ardatz, eta, beraz, baliabide urriak dituzten komunitateek ez dute zerbitzurik jasotzen. Halaber, uraren korporazioak arautzen duen legea irabazirik handienena da, eta kontsumoaren hazkundearekin lotuta dago; beraz, baliabidearen kontserbazioa sustatzea gero eta zailagoa da.

Horrek erakusten du MLIn uraren gainean zehazten denak zuzenean eragingo duela baliabide horretan, baina baita baliabide horrekin elkarreragiten duten beste ondare naturaletan ere. Hortaz, arreta berezia jarri behar da benetan sektore pribatuak herrialdeko eremuak eta parke naturalak eskuratzeko duen helburuaren gainean. Eremu horiek bertako ingurumen-zerbitzuak direla-eta pribatizatu nahi dituzte, eta horrek aberastasun-iturri gehiago sortzen ditu, baita baliabide-ustiapena ere (ura, biodibertsitatea eta ekoturismoa, esaterako). Proiektu askotan, bizi-baldintzak hobetzeko asmoa ikusten da, baina, azken finean, gizartean islatzen ez den interes ekonomikoa bilatzen dute.

IV. Nekazarien institutu nagusiak (IMCA) herrietan eta eskualdeetan uraren gainean egindako lana

Arazo horren aurrean, eta gobernuz kanpoko erakunde zehatz batekin, Nekazarien Institutu Nagusiarekin alegia, errealitateari jasangarritasun-ikuspegiarekin erantzuten saiatzen gara zenbait esparrutan: esparru nazionalean, eskualdeetan eta herrietan. Horregatik aipatu nahi dugu praktika hori deskripzio honetan; izan ere, instituzioarentzat eta bertan lan egiten dugun pertsonentzat, uraren eskuragarritasunaren gainean ezarri dizkiguten politikei modu alternatiboan erantzuteko modu zehatza da.

Uraren nazio-kanpaina: “Ura: ondasun publikoa”

Nekazarien komunitateen, GKEen eta instituzioen ekimenak nabarmendu nahi ditugu, ahalegin handia egiten ari baitira eskualdeetan eta estatuan ondare hidrikoa gizateriaren ondasun gisa berreskuratzeko eta kontserbatzeko.

Hala, errealitate horren aurrean, gizarte zibileko organizazio eta erakunde ugari batu gara herrialde osoko kanpainan, 2006ko lehen seihilekoan, ECOFONDO

buru dela (nazio-esparruko ingurumen-organizazio pribatua), eta ekimen hau sortu dugu: *"Defenda dezagun ura ondasun publiko gisa"*. Kanpaina horrek hainbat fase izan zituen lehen etapan, eta, orain, politika publikoak, ekintzak eta organizazio-moduak eraikitzen eta ezartzen ari da, Kolonbian ura ondasun publiko gisa defendatzeko. Hori lortzeko, prozesu parte-hartzaileak bultzatu behar dira, lehen aipatutako alderdietan esperientziak dituzten erakunde komunitarioak eta gobernuz kanpokoak sartu.

Nazio-kanpaina: "Ura, ondasun publikoa" kanpainak ura babesteko politika publikoak eraiki nahi ditu, ekintza eta neurri zehatzetatik hasita. Ekintza horiek baliozkotutakoak izango dira, eskualdeetako kanpainetan garatutakoak. Hiru fasetan egituratzen da kanpaina: lehena ikerketakoa da; bigarrena, sozializaziokoa; eta hirugarrena, azkena, mobilizaziokoa.

Kanpaina horrekin, uraren gaineko ezagutza zientifikoa eta komunitarioa sakondu eta sistematizatu nahi izan da, eta, horretarako hautatutako eskualdeetan, oinarrizko ildo bat eraiki da. Hala, bigarren mailako informazioa jaso eta sistematizatu da, alternatibak proposatzeko eta eraikitzeko gaitasuna indartzeko.

Kolonbian egin ditugun mintegietan, lantegietan, herrietako eta eskualdeetako foroetan eta Valle del Caucan eta haren iparraldean IMCAk ura ondasun publikoa dela aldarrikatzeko koordinatutako kanpainan, zenbait borroka eta jarduera oso zehatz izan ziren ereduzko kasuak.

Beraz, oinarrizko ildoa agertzen zuten dokumentuak egin zituen kanpainak Kolonbiako 12 eskualdetan. Urarekin zerikusia duten topiko asko sintetizatu eta aztertzen dituzte dokumentu horiek. Topiko horiek, politika publikoen gaikako banaketaren ondorioz, oso barreiatuta eta desegituratuta daude. Dokumentuetan, uraren erabileraren eta Kolonbiako hidrografiaren arteko erlazio dinamikoen ezaugarriak ageri dira, edateko ur-sistemen gabezien eta oinarrizko saneamenduen eta gaixotasunen arteko erlazioak, Kolonbiako haurretan batez ere. Halaber, argi erakusten dute herrialdean ura maneiatzen duen egitura instituzionalaren eta uraren defentsaren inguruko mugimendu sozialen arteko kontrastea.

Eskualdeko kanpainek erakundeak eta herritarrak mugitu dituzte, emaitza zehatzak lortzeko edota horretarako baldintzak ezartzeko. Ibilaldiak, martxak, ospakizun ludikoak, ekintza eta proposamenak eraman dituzte herrietako, departamenduetako eta estatuko administrazioetako eta epaitegietako agintarien aurrera.

Ura ondasun publikotzat hartzearen aldeko mugimendua ekintza politiko demokratikoa da orain, eta, horregatik, Gubbiotti ekarri nahi dugu gogora: "Val Lemme uraren alde herriak egindako mobilizazioak argi erakusten du herri informatua gai dela, desobedientzia bidezko modu baketsuak erabiliz, gatazka politikoak sortzeko. Askotan modu horiek dira onenak herri-administrazioen rol aktiboa indartzeko. Beraz, demokrazia ekologikoak eta urarenak prozesuak piztu behar ditu, ahal den heinean, herritarren subiranotasuna berriro lortzeko"[32].

Gizarteratze–fasean, eskualdeko 16 foro egin ziren. Horiek prestatzeko, batzorde eragileak behar izan ziren; erakunde sozialek eta eskualdeetako mugimenduek osatzen zituzten, eta ez zuten ECOFONDOrekin harremana izan beharrik. Horrek lanerako dinamika sakona jarri zuen. Foroek ingurumenaren gaineko zenbait arazo eta prozesu, urari dagokionez ezinbestekoak, aintzat hartu dituzte. Hori hala, foro bakoitzak adierazpen bateratu bat sortu zuen (ikus 1. eranskina: Adierazpena: Valle del Cauca eta iparraldeko Uraren Eskualdeko Foroa: "Ura, ondasun publikoa"), eta kasu sinbolo bat hautatu zuen ekintza zehatz horietatik abiatuta eskualdeetako politika publikoen proposamenak garatzeko.

Valle del Caucako eta iparraldeko eskualdeko foroaren barruan, bada herrietako erlijio- eta politika-dimentsioak biltzen dituen jarduera bat: "HAZIEN ETA URAREN ERROMERIA". Erromeria hori ur-jauzi eta ibai batzuetan egiten dugu, eta mende askotako tradizio bat, gure herrian ondo errotua, du oinarri.

Latinoamerikan, Kolonbian eta, batez ere, Bugan (han dauka egoitza IMCAk) santutegi bat dugu, eta erromesak pilaka joan ohi dira hara. Egun herrietan dauden santutegi askok indigenen erromesaldietarako lekuak dituzte jatorri; haientzat leku sakratuak ziren, naturarekin eta haren iturriekin –urarekin esaterako– lotura handia zutenak. Gaur egun hazien eta uraren erromesak gara, eta zentzu espirituala nahiz politikoa ematen diogu; Jainkoaren xedeetan inspiratutako errealitatea bera transformatzea.

Hauek izan dira **hazien eta uraren erromerien** helburuak:

- Uraren errealitatea eta izaera sakratua aintzat hartzea.
- Gure eskualdeko uraren errealitatearen gainean gogoeta egitea.

---

[32] MAURIZIO GUBBIOTTI, *Agua, conflicto y democracia en el mundo actual*, Erroma, 2006. Italiako Legambienteko kidea. Jairo Miguel Gurrearen itzulpena.

- Erromesaldiaren izaera mistikoa eta politikoa berriro lortzea.
- Komunitate indigenek, nekazariek eta afrikarrek uraz jabetzearen eta pribatizatzearen kontra egiten dituzten borrokak indartzea.
- Hazietan eta uretan azaldutako bizitza ospatzea.
- Ura babesteko konpromisoa hartzea.
- Egun ura erabiltzeko dagoen modua salatzea.
- Herri guztiek ura izateko duten eskubidea aldarrikatzea.
- Ura herrien ondasuna dela nabarmentzea.
- Hazietan eta uretan dagoen Jainkoaren presentzia onartzea.
- Eskualdeko nekazarien lanari elkartasuna adieraztea eta ura zaintzeko konpromisoa hartzea.
- Antolatutako komunitateen indarra esperimentatzea.
- Nekazarien komunitateek duten erresistentziaren eta errebindikazioaren alde egitea eta gizarte zibilaren erreserba-sarea baloratzea.
- Gure arteko elkartasuna, trukea eta senidetasuna bizitzea.
- Itxaropena elikatzea.

Komunitateetako akueduktuak

Oro har, herri eta eskualdeetako gobernuak presioa egiten ari dira komunitateetako akueduktuak pribatizatzeko. Komunitateetako erakundeek audientzia publikoak eta sozializazio-foroak egin dituzte akueduktuak egiteko eta maneiatzeko prozesuen aurrean. Hornitzeko arroak babesteko ekintzak ere egin dituzte, baita komunitatea ingurumenaren gainean hezteko programak ere.

Pribatizatze-prozesuen errealitatearen aurrean, ikusten da akueduktuek, ura merkantzia bilakatzeaz gain, zerbitzu publikoen tarifak garestitzen dituztela, eta, pertsona askori ura izateko aukera kenduta, desberdintasun soziala sortzen dutela.

Komunitateetako akueduktuek badute mehatxu bat. Akueduktuekin eta ureztatze-barrutiekin lotutako gatazketan, gizarte-antolaketak politika publikoari aurre

egiten dio, eta araudia ezartzen da etxeetan zerbitzu publikoa eskaintzeari dagokionez; zerbitzu horiek ez dute horrelako antolaketarik (142. legeak baimendutako erakundeak deitzen zaie).

Uraren gaineko gatazka horiek hainbat antzekotasun dituzte. Komunitate txiroenak eskualdeko botere politiko eta ekonomikoen aurrez aurre ipintzen dira; botere horiek nazioz gaindikoek babesten dituzte, zeinek gobernuetako erabakiak maneiatzen baitituzte. Interes komunaren edo publikoaren babesa eskatzen da, baina interes pribatu gutxi batzuek baizik ez dute irabazten, estatuko gestioaren bitartez; lurraldeko plangintza eta antolaketa egiten da, lurraren erabilerak eta komunitateetako jarduera produktiboak zehazteko, betiere energia-politiketako interes nagusiaren arabera: gutxiren zerbitzura dago Estatua, baina oso boteretsua da.

Bestalde, Kolonbiako Estatuak pribatizatzea sakondu nahi du alternatiba bakar gisa, eta, horretarako, hainbat politika erabiltzen du; esaterako, zerbitzu publikoetako tarifak, eskumenak eta udalerrien autonomia mugatzea, atzerriko inbertsioa sustatzea, SINA (Ingurumen Sistema Nazionala) ahultzea eta uraren lege-proiektua. Hala, uraren merkatuak sortzen ditu epe luzeko kontzesio bidez, eta, gobernuaren esku-hartzerik gabe, partikularren artean eskualdatzen dira. Estrategia horien guztien atzean, nazioarteko finantza-erakundeak daude. Horiek neurriak hartzeko presionatzen dituzte gobernuak, edo egiturak egokitzeko planak egiten dituzte. Plan horiek ondorio larriak eragiten dituzte; eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak urratzen dituzte, baita ingurumenekoak ere.

Egoera horiek aurrez aurre jartzen dituzten prozesu sozialak ez daude baldintza berdinetan, eta indarkeria-faktoreen aurrean oso ahulak dira. Mobilizazioak eta babes sozial zabalak soilik eman dezakete emaitza positibo iraunkorrak lortzeko aukera.

Hartara, helburua da horren kudeaketak eta kontrolak irautea esparru publikoan, sozialean, komunitarioan, parte-hartzailean eta irabazi-asmotik gabean. Gainera, herriko nahiz nazioarteko erakunde publiko guztien obligazioa izango da baldintza horiek bermatzea.

Horregatik, Nekazarien Institutu Nagusiak landa-eremuetako komunitate-akueduktuetan parte hartzen duten pertsona eta erakundeen bilkura antolatu zuen. Beredetako[33] akueduktuek mikroarro hornitzaileak maneiatzerakoan laguntza eman nahi zuten, Buga udalerriko esperientzia batzuk aintzat hartuta.

[33] Bereda nekazarien komunitatea da.

Bilkuran, esperientziak partekatu nahi izan zituzten, eta eztabaida-elementuak ezarri, ura erabiltzean komunitateek posizio politiko argia izan dezaten eta babesteaz eta kontserbatzeaz arduratu daitezen.

Bilkuraren aurretik, 2005eko urrian, Elikadura eta Nutrizio Segurtasun eta Subiranotasunaren gainean jardun ziren, uraren errealitatea ardatz hartuta, eta ura KOMUNITATEEN ONDASUN gisa nabarmendu zuten. Aurtengo apirilean, ECOFONDOk zuzendutako kanpaina garatu zen: "Ura, ondasun publikoa". Kanpaina horretan, hainbat erakunde-motak hartu zuten parte, eta guztiek egin zuten ura babestearen alde.

Komunitateek berek proposamenak indartu zituzten komunitate-akueduktuen gaineko bilkuran, eta helburuak hauek izan ziren:

1. Uraren egungo arazoa eta pribatizatzearen mehatxua aztertzea.
2. Komunitate-akueduktuen egoerak identifikatzea.
3. Egungo egoera hobetzeko prozesu bat sortuko duten alternatibak hitzartzea.

Bilkuran ondorio hauek aipatu ziren, konpromiso moduan:

- CVC-Valle del Caucako Ingurumen Korporazioaren ingurumen-planak (Plan Berdea) ezagutzea.
- Legeak ezagutzea, 175. Legea eta mikroarroa kontserbatzeko tarifak biltzeko partaidetzen Lege orokorra kasurako.
- Uraren zerbitzua eta hura zuzentzen duten legeak administrazio- eta kontabilitate-arloan maneiatzeko gai izatea.
- Akueduktuen administrazioan trebatzea, CVC, SENA; UNIVALLEren aurrean kudeatzea.
- Ingurumen Ministerioan edota bakoitzaren udalerrian kudeketa-lanak egitea.
- CVC, SENA, UNIVALLE eta IMCArekin kudeaketa instituzionala bideratzea.
- GKEekin eta beste herrialdeetako erakundeekin baliabide ekonomikoak biltzea eta kudeatzea.
- Zergak ordaintzetik libratzen ahalegintzea, 190 192/93 legearen bitartez.

- Lehendik dauden baliabideak aprobetxatzea.
- Eskualdeetako proiektu kolektiboak.
- Akueduktu-sistema bakoitza teknikoki ebaluatzea.
- Harpidedunen, familien eta komunitateen artean teknologia egokia eta itundua ezartzea.
- Babes-eremuak handitzea.
- Lur pribatuetarako 101 legea erabiltzea; erabiltzaileen mugak eta betebeharrak zehazten ditu.
- Tarifetan bildutakoaren ehuneko bat mikroarroak kontserbatzeko erabiltzea.
- Komunitateen akueduktuen eskualdeko sarea osatzea.
- Gobernuaren "uraren legearen" aurrean erresistentzia-esparruak sortzea.
- Eskoletako programak ezartzea eta indartzea (PRAES).
- Ur-zerbitzuaz aparteko ekintzak ezartzea.
- Pertsonak arazoaz kontzientziatzeko Buenaventuran mobilizazioa egitea.
- MLIn gai hau jorratzen duen problematika ezagutzera ematea.
- Akueduktuez arduratzen diren iturginak teknikoki trebatzea.
- Akueduktuetako liderrak udal-plangintzaren kontseiluan (CMPT) parte hartzera bultzatzea, CMDR.
- Uraren departamendu-kontseiluaren aurrean ordezkari bat izendatzea.
- Udalerri bakoitzean harpidedunen taldeak egitea.
- Erakundeen aurrean zuzendaritza prestua hautatzea.
- Eskualdeko bilkura bat antolatzea esperientziak ebaluatu eta trukatzeko, eta, era berean, prestatzeko eta trebatzeko espazioa izatea.
- Garraiorako, elikatzeko eta guztiok konpromisoak hartzeko baliabideak lortu ahal izateko funts komuna eratzea.

Mikroarro baten erabilera osoa, Bugan – Valle del Caucan

Ikuspegi mikroerregionalagotik begiratuta, IMCAk, ondare hidrikoa babesteko egindako proiektua garatzean, jarduera bat aurrera eraman du Buga udalerrian; beredako sei akueduktu hornitzen dituzten mikroarroak modu arrazionalean berreskuratzea, kontserbatzea, erabiltzea eta maneiatzea izan da helburua, betiere eremu horren jasangarritasun-ikuspegiarekin. IMCA ari da proiektuaren segizioa egiten, landa-eskola ekologikoarekin batera, eta nekazaritzako behaketa eta ikerketaren garapena suspertzen ere ari dira.

Helburu espezifikoen barruan, Guadalajara ibaiko mikroarroen adarrak osorik maneiatzeko proposamena egin nahi da; horiek beredako sei akueduktu hornitzen dituzte. Horrez gain, esperientzia pilotu bat ere jarri nahi dute martxan, El Janeiro mikroarroaren erabilera osoan laguntzeko (beredako komunitatea).

Proiektua komunitatearekin batera prestatu da, Guadalajara ibaiko mikroarroen adarrak narriatuta eta kutsatuta daudelako, agrokimikoengatik, ukuiluetako hondakinengatik, zikinkeriagatik eta hegazti batzuengatik; abeltzaintzak narriadura-arazoak eragin ditu lurrean, eta oraindik ere higadura eragiten duten teknikak erabiltzen dira (aitzur luzearen erabilera, maldaren aldeko ereiteak, labore garbiak...) Hori horrela, ingurumena narriatzen duten praktika desegokiak nagusitzen dira, eta ingurumenarentzat oso kaltegarriak diren praktikak zabalduta daude.

Bestalde, beredako akueduktuen administrazio-batzordeek ez dute akueduktuak hornitzen dituzten mikroarroak erabiltzeko proposamenik, eta ez dago beredako akueduktuak hornitzen dituzten mikroarroetako baliabide naturalak kontserbatzeko erabilera-proposamen egokirik ere.

Proiektua garatzeko, metodologia bat diseinatu da, modu kolektiboan eraikitako proposamen baten barruan. Proposamen horretan, mikroarro bakoitzeko jasangarritasunari dagokion etorkizuneko ikuspegia erabili da, ikuspegi estrategikoa, betiere osagai ekonomikoak, sozialak, kulturalak, politikoak eta ingurumenekoak kontuan izanda.

Proposatutako sentsibilizazio-lantegietan, modu kolektiboan, mikroarro bat eraikitzen da jasangarritasun-kondizioetan, modu grafikoan. Lehen aipatutako bost osagaiak nabarmentzen dira, eta urak agerian egon behar du, gero egungo egoera erakusten duten grafikoekin (egungo mapak) alderatzeko. Bi egoera horietatik abiatuta (geroa eta oraina), galdera-giden bidez, gogoeta eragiten da, nahi denaren eta gertatzen ari denaren arteko analisia egiteko. Hori osatzeko, uraren

zikloari buruzko oinarrizko informazioa erabiltzen da; urak bizitzako hainbat alderditan duen zeregina, eta gizakiarentzat, animalientzat, landareentzat eta prozesu industrialentzat ur geza biltzeko eta erregulatzeko Andeetan dauden area estrategikoen kokalekuak. Mikroarro bakoitzerako dokumentu bat egon behar du. Proiektutako etorkizuneko egoera eta komunitatearekin nahiz erakundeekin hitzartzeko egin beharreko ekintzak agertuko dituzte dokumentuek.

Komunitateetan, hondakin-urak deskontaminatzeari eta El Janeiro komunitateko proiektua garatzeari dagokionean, parte-hartzaileekin batera uraren erabilera aztertzen da. Gogoetak argi erakutsi behar du ura zikindu, kutsatu, egiten dugula eguneroko erabilera-prozesuan, eta normalean arazoa gainetik kentzeko modu erraza dela lur zabalean edo ur-barrutietan uztea, hala ahaztu egiten baitzaigu edo ez baitugu jakiten gero zer gertatzen den, ezta zer ondorio dituen ere. Arazoari irtenbidea aurkitzen lagundu behar digu azterketa horrek, eta, horretarako, hondakin-urak deskontaminatzeko alternatibak aztertu behar dira.

Hondakin-urak tratatzeari dagokionez, berriz, badira urte batzuk IMCA nekazarien komunitatearekin bere etxalde agroekologikoan konponbiderako estrategia bat aurrera eramaten ari dela, eta ez da ura deskontaminatzeko soilik; kutsadura sortzen duen materia organikoa aprobetxatzen du, energia kaloriko transformatu eta sukaldean erabiltzeko. Lursailetako ur kutsatuak tratatzeko sistema horretan, beste gailu bat ere erabiltzen dute; kanal mailakatuak jartzen dituzte, eta, horietan, ur gaineko landareak. Horien sustraiek uretako kutsagarriak xurgatzen dituzte. Hauek dira landareak: *eichornia crassipes, pistia stratiote, azolla*, *salvinia* eta *lemna*.

Proiektuaren lehen fase horretan, parte-hartzaileek beren kulturara eta egoera sozioekonomikora ondoen egokitzen den alternatiba teknologikoa hautatuko dute, eta horretan parte hartu. Betiere, kontuan izan behar dute zailtasunik gabe jardun eta mantendu behar dutela. Bigarren fasean, basogintza-abeltzaintzako sistemak garatzen diren lursailetako hondakin-urak deskontaminatzeko sistema indibidualak eraiki behar dira.

Lursailetako basogintza-abeltzaintzako sistemak eta agroekologikoak esperientzia hori izandako lekuetan ezarri behar dira, beti nekazarien metodologiei jarraiki, beste lursail batzuetan nekazariek aplika ditzaketen ikasgaiak indartzeko.

Familiek parte hartzea ezinbestekoa da, eta, beraz, emakumeek, haurrek, helduek eta langileek gogoetetan eta erabakietan parte hartzea sustatuko da; hala, gaitasunekin eta aukerekin bat datozen erantzukizunak hartuko dituzte.

V. Ondorioak

Lor al daiteke xede hori? Galdera horixe egin diogu gure buruari. "NBEk kalkulatzen urtean 10 mila milioi dolarreko inbertsioa egin beharko dela nahi dituen garapen-xedeak lortzeko. Diru-kantitate hori baino gehiago xahutzen dute gastu militarretan bost egunean, eta garatutako herrialdeetan ur mineraletan ere gehiago gastatzen dute. Kantitate horrek mila milioi haur salbatuko lituzke 10 urtean, eta 38 mila milioi dolarreko onura ekonomikoak sortu"[34].

Egin beharreko inbertsioa funtsezkoa da, baina guk uste dugu ura bizitzaren zati dela, eta gizateriaren esku dagoela erabilerari, kontserbazioari eta babesari dagokionez kudeaketa kolektiboa ziurtatzea, betiere gizaki eta izaki bizidun guztiek duten bizitzeko eskubidea errespetatuta eta datozen belaunaldiak aintzat hartuta[35].

Ura eskubide unibertsal gisa eta gizateriaren ondasun gisa defendatzea gizartearen antolaketaren araberakoa izango da. Ekintza hori bizitza defendatzeko egin behar luke gizarteak, eta ez gutxi batzuek negozioa egiteko.

Giza dramaren aurrean, gure kontzientzia esnatu beharko litzakete, eta, postura etikotik, erantzukizunez, kooperazio unibertsalez edo elkartasunez defendatu beharko genuke. Ura ondasun komun globala da, eta, horregatik, guztiok kalitatezko ura izatea erantzukizun indibiduala nahiz kolektiboa da, ea gerentzia demokratikoa lortzen den.

Gizarteek boterea dute planetako baliabide naturalen gainean egiten ari garen presioak murrizteko. Duguna baino gehiago gastatzen ari gara: kapital naturala eta gizakiaren ongizatea. Hori lortzeko, baina, "aldaketa erradikalak" egin behar dira natura tratatzeko moduan, "hartzen diren erabaki guztietan" eta gobernuen, enpresen eta gizartearen arteko kooperazio-modu berrietan[36].

Uraren kultura berria ezarri behar da, nortasunaren mailekin zerikusia duen dimentsio-multzoaren erantzun gisa (balioak, sinesmenak, ezagutzak, jarrerak, sentimenduak eta portaerak), eta komunitatearen iritziarekin adierazi. Iritzi horiek biztanleriaren ezaugarri demografikoen araberakoak dira (adina, sexua,

---

[34] EL TIEMPO egunkariko editoriala, 2006ko azaroaren 10a, ostirala.

[35] RODRIGO MARÍN RAMÍREZ, E*l agua un derecho intransferible*, Bogota: Kimpres, Lltda., 2004ko azaroa.

[36] ANTIOKIAKO UNIBERTSITATEA, *Alerta planetako narriadura ekologikoagatik, Dbts.* aldizkaria. 40. zk.

ikasketa-maila), eta gizarte- eta egitura-aldagaien araberakoak (lanbidea, errenta-maila), egoeraren araberakoak (habitata, bizitokia) edo ideologiaren araberakoak (kontzientzia ekologikoa, ideologia politikoa) ere bai; beraz, uraren kulturari dagokionez, taldeak bereizten dira[37].

Premiaz eta halabeharrez defendatu behar da ura, gizateria osoaren ondasun gisa, pribatizatzea saihestu eta kutsatu nahiz natura suntsitzen dutenak zigortzen dituzten ekintza zehatzekin, legeekin eta politika publikoekin. Horrexegatik, hain zuzen, baliabide hidriko kontzeptua ondare kontzeptuagatik aldatu behar dugu, ura eskubidea dela aitortzeko.

7. helburuaren adierazleak eta xedeak, ingurumenaren jasangarritasunari buruzkoak baino gehiago, ingurumen globaleko inpaktuari buruzkoak dira (esaterako, energia-kontsumoaren, berotegi-efektuak sortutako gas-emisioen eta ozonogeruza estratosferikoa ahitzen duten substantzien berri ematen duten adierazleak). Politika eta programetako ingurumen-dimentsioaren integrazioari buruzko adierazleak oraindik definitu gabe daude. 7. helburuan ez dira sartzen eskualdeetako ingurumen-jasangarritasunerako garrantzitsuak diren xedeak eta adierazleak, arroen eta ur gezaren baliabideen narriadurararen adierazleak, eta kostako eta itsasoko baliabideen gehiegizko ustiapen, higadura eta lur-kutsaduraren adierazleak[38].

Horregatik, orain arte egin dugun gogoeta kontuan izanda, uste dugu milurtekoko helburuaren xedea goragarria dela, eta uraren arazoa zerbitzua ematera murrizten duela jasangarritasunaren ikuspegia galduta. Ikuspegi horrek, modu integralean begiratuta, ikuskera zabaltzen du, ura gizateriaren ondaretzat hartuta, eta, beraz, ondasun publikoaren izaera berresten du. Horrexegatik, bat gatoz L. Boffek[39] Munduko V. Gizarte Foroan egindako deiarekin; Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsal antropozentrikoa "Lurraren Gutunarekin"[40] osatzea proposatu zuen. Adierazpen horrek izaki bizidun guztien eskubideak berresten ditu, eta beste ideia "berri" bat gehitzen du, mobilizatzeko behar larria alegia: "Nire ustez, ereiteko eta amesteko unea bere bidea egiten ari da. Urte hauetan ikuspegiak

---

[37] RODRIGO MARÍN RAMÍREZ, E*l agua un derecho intransferible*, Kimpres, Lltda., Bogota, 2004ko azaroa.

[38] Ibidem.

[39] LEONARDO BOFF, teologo brasildarra.

[40] NBE, Lurraren gutuna.

bildu ditugu, sareak indartu. Orain uste dut pauso zehatzak egiten hasi behar dugula. Garrantzitsua litzateke munduko bateratasunaren bi edo hiru puntutara iristea, eta presionatzea, eta alternatiba batean ekitea eta bizitzea. Hori egin ezean, foroak oso interesgarriak eta alaiak izango dira, baina gure buruarekin irrist egiteko arriskua izango dugu. Ederra denarekin konformatzeko arriskua dago, baina agian hori ez da nahikoa."[41].

Beharrezkoa da garapen-ikusmolde tradizionalak gainditzea; horietan, komunitateek eskulanarekin parte hartzen dute, gastuak murrizteko. Analizatzeko, egiteko eta erabakitzeko parte hartu behar du komunitateak. Beraz, egun, informatzeko, hezteko, kontsultatzeko, ekimenak indartzeko, fiskalizaziorako, hitzarmenerako, erabakiak hartzeko eta kudeatzeko ekintzak barne hartzen dituzte jarduerek, proiektuaren fase guztietan. Komunitatearen parte-hartzea garapen-planen gainean informatzea baino gehiago da. Halaber, bertako komunitatearen ezagutzak eta lehentasunak kontuan hartzea baino gehiago da. Esan nahi du komunitateak, plangintza egiten dutenek eta langileek elkarrizketa bat dutela, eta komunitatearen lehentasunek eta ideiek proiektuak egiten laguntzen dutela. Prozesu horretan, komunitateak autoritatea eta benetako boterea partekatu ditzake garapen-ziklo osoan. Komunitatearen parte-hartzean, garapenaren kontzeptua pertsonetan oinarritutako prozesua da, eta ez objektuetan, eta komunitateak pertsonen garapenaren kudeatzailetzat hartzen dira.

Egia da komunitateak gero eta gehiago parte hartzen duela edateko uraren eta oinarrizko saneamenduaren prozesuetan, baina oraindik ere zeregin handia dago komunitateetan kudeatzeko gaitasuna sortzeko. Kudeaketa horrekin, sistemen funtzionamendua eta jasangarritasuna bermatuko lirateke, are gehiago beraiek dutenean administratzeko erantzukizun handia.

Gure praktikaren eta eskualdean sortu nahi dugun mobilizazioaren arabera, bat gatoz Gubbiottiren hitz hauekin: "Uraren bidez, herritarren eredu berri bat sor daiteke, Vandana Shivak demokrazia ekologikoa eta ekonomikoa deitzen diona; izan ere, demokrazia ez da hauteskundeetako erritual bat soilik, pertsonek beren etorkizuna eraikitzeko duten boterea ere bada, beren baliabide naturalak nola hartu eta erabili behar dituzten zehazteko eta beren egarria nola ase behar duten zehazteko boterea hain zuzen. Demokrazia ekologikoak tokia-tokian du muina.

[41] Sergio Ferrariri egindako elkarrizketa, 05-03-22, ALTERCOM. Sergio Ferrari kazetari argentinarra da, UNITEko kolaboratzailea. UNITE boluntarioen GKE-plataforma bat da.

Ura gizakiaren oinarrizko eskubide gisa jartzeak esan nahi du kontabilitateko eta merkatuko logiken aurrean ukiezina dela, eta erlazio berri baterako aukera parte-hartzailea dela "res" (gauza) publikoaren kudeaketan. Ahal den lekuetan bertako kultura tradizionalak, indigenak, errespetatzeko baliabideak kudeatzeko eredu komunalak aitortzea eta sustatzea esan nahi du, eta agian haietatik inspirazioa jasotzea. Bezero-entzuleen biztanleria transformatzea esan nahi du, eta haiek adostasunerako duten eskubidea ziurtatzea, aurretik ondo informatuta, uraren gestioari buruzko erabaki guztietan"[42].

Baliabide hidrikoak erabiltzean komunitateen esku-hartzea oinarrizkotzat hartzen badugu, komunitateetako gobernuen esku-hartzea ere bultzatzen dugu. "Herrialdeko eskualde askotan, ura eskuratzerakoan zaurgarritasun handia dago, eta ingurumen-narriadurak argi erakusten du ura erabiltzeko politikek eraginkorragoak izan behar dutela. Baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra bideratzen duten adierazle egokiak falta dira merkatuan, eta, horregatik, beharrezkoa da gobernuak neurriak hartzea jarduera publikoen eta pribatuen inpaktu negatiboak kontrolatzeko. Hala, tresna ekonomikoak ezarrita, agente ekonomikoen ingurumen-portaera aldatu nahi da"[43].

Ikuspegi teknikoagotik begiratuta, edateko uraren eta saneamenduaren sektoreko arazoaren konponbidea ez da bereizi behar uraren gestioa hobetzeko behar orokorretik. Saneamendua handitzeak ur baliagarriaren deskargak handitzea dakar, eta hori da ura kutsatzen duen eragile nagusia. Ura kudeatzeko sistema onak izateko, beharrezkoa da, besteren artean:

1. Esparru erregulatzaileak hobetzea, legedi hidriko baten bidez. Legedi horrek argi azaldu behar ditu erantzukizun publikoak eta pribatuak, eta baliabidea ondo aprobetxatzeko eta jasangarria izateko aukera eman behar du;

2. Erabilera sektorialik gabeko autoritatea, bere erantzukizunekin bat datozen botereekin eta bitartekoekin, erabakiak hartzeko prozesua hobetzeko;

3. Gatazkak konpontzeko mekanismo eraginkorra;

4. Garapenean eta uraren kontserbazioan inbertitzea sustatzen duen asignazio-sistema, era berean, erabilera eraginkorra eta ordenatua bermatzen

---

[42] MAURIZIO GUBBIOTTI, *Agua, conflicto y democracia en el mundo actual*, Erroma, 2006. Italiako Legambienteko kidea. Jairo Miguel Gurrearen itzulpena.

[43] LEONARDO BOFF, *La Guerra del Agua*, Koinonia aldizkaria.

duena, monopolizatzea saihesten duena, eta, interes publikoaren eta ekosistemen funtzionamenduaren arabera, kontrolatzeko aukera ematen duena.

5. Kutsadura hidrikoa kontrolatzeko sistema, ur baliagarriaren tratamendu-sistemetako inbertsioa finantzatzeko baliabide ekonomikoak mobilizatzeko aukera ematen duena.

Azkenik, ura dela-eta sortzen diren gerrak saihestu nahi baditugu, beharrezkoa da: ura pribatizatzearen logikaren atzean dagoen ulermen materialista eraistea. Merkantziatzat hartzean, urarekin zuzenean lotuta dagoen edozein sentimendu etiko, ekologiko eta espiritual suntsitzen du.

- Ura Lurreko bizitzeko modu guztien matrizetzat hartzen duen jatorrizko zentzua berreskuratzea. Ura, bizitza bezalaxe, ezin da inoiz merkantzia bilakatu.
- Urari buruzko munduko itun bat egiteko beharraren kontzientzia sortzea, –asko proposatzen ari dira jada–, mundu guztiak behar baitu bizitzeko.
- Azkenik, planetako kontzientzia horren izenean, inolaz ere ez da eman behar pribatizatzeko eskubidea. Munduko negoziazio komertzialetatik atera behar da[44].

Valle del Caucako instituzio batek egindako praktika zehatzetan eratzen ari diren proposamenak nabarmentzekoak dira; politika publiko askori eta gailentzen den ikusmoldeari kontrapisua egiten diote. Ikusmolde horretan, pribatizatzearen diskurtsoa itxuraz salbatzailea zen 7. helburua eta haren xedeak –batez ere, gizaki guztiek edateko ura izatea– lortzeko. Egongo lirateke beste bide batzuk teknikari meriturik kendu gabe eta eskuragarritasun kolektiboarekin lotutako beste arazo batzuekin, posizio etiko bat urratu gabe eta izaki bizidun guztiek ura izateko duten eskubidea kontuan izanda helburura iristeko.

Bibliografia

ALBOAN (2006ko martxoa), "Milurtekoko Garapen Helburuak. Aldaketarako erreminta edo garapena beherapenean?", ALBOAN aldizkarian, Bilbo.

Antiokiako Unibertsitatea, "Para vivir con dignidad: acceso universal al agua", *Debates aldizkaria,* 40. zk.

[44] LEONARDO BOFF, *La Guerra del Agua*, Koinonia aldizkaria.

Antiokiako Unibertsitatea, “Alerta por el deterioro”, *Debates aldizkaria,* 40. zk.

Auza Guelly, *Instrumentos económicos para el manejo del agua en Colombia*, Bogotá.

Boff, Leonardo, “La Guerra del Agua”, *Koinonia* aldizkarian.

Colmenares, Rafael (2006ko iraila), “El Agua: un bien publico, Razones para una campaña”, ECOFONDO, artikulua.

Colmenares, Rafael (2005), *Comentarios al proyecto de Ley del Agua*, mimeografiatuta.

Errepublikako Kontraloria Nagusia (1995eko txostena), “Encuesta sobre cantidad y calidad del agua potable en Colombia”, en *El estado de los recursos naturales y del ambiente*.

EL TIEMPO egunkaria.

Ferro, Alfredo (2006), *El agua, fuente bendita de vida – Aproximación a una teología, espiritualidad y pastoral del agua*, Feriva, Cali.

Fortune aldizkaria 2.000 (2002), Krusek aipatua.

Gubbiotti, Maurizio (2006), *Agua, conflicto y democracia en el mundo actual*, Erroma. Italiako Legambienteko kidea. Jairo Miguel Gurrearen itzulpena.

Herriaren Defendatzailea – Kolonbia (2005), *Gizakiak kontsumitzeko uraren kalitateari buruzko diagnostikoa Kolonbian, uraren giza eskubidearen esparruan*, Bogota.

IDEAM Hidrologia, Metereologia eta Ingurumen Institutua (2000), *Uraren Ikerketa Nazionala*.

Machinea, José Luis, Barcena, Alicia eta León, Arturo (2005), *Milurtekoko helburuak. Begirada bat Ameriketatik eta Karibetik*, NBE-CEPAL.

Marín Ramírez, Rodrigo (2004ko azaroa), *Agua un derecho intransferible*, Kimpres Ltda. argitaletxea, Bogota.

Mira, Juan Camilo (2006), “Construcción e implementación participativa de políticas públicas, acciones y formas organizativas para la defensa del agua como bien público en Colombia, línea de base nacional”, Campaña nacional del agua como bien publico, ECOFONDO.

Mira, Juan Camilo (2006), *El agua en Colombia -La complejidad de los ecosistemas enfrentadas la simplicidad de las políticas públicas*, ECOFONDO, Bogota.

NBE, Munduko Giza Garapenerako Txostena - Nazio Batuen Garapenerako Programa (2006ko azaroa), *Eskasia baino gehiago: boterea, pobrezia eta uraren munduko krisia*.

NBE, *Baliabide hidrikoen garapenari buruzko txostena*: "Ura guztiontzat, ura biziarentzat".

NBE, *Lurraren gutuna*.

Porto Alegreko Munduko V. Gizarte Foroko Adierazpena.

Semana aldizkaria (2004ko irailaren), *Vientos de sed*.

Vásquez Celis, Lucía (2005), *Acerca del proyecto de Ley Forestal de Colombia*, mimeografiatua.

1. ERASKINA

Adierazpena

Buga, 2006ko apirilaren 5a eta 6a.
Urari buruzko eskualdeko foroa, Valle del Cauca eta Iparraldea
"URA, ONDASUN PUBLIKOA"

Adierazpen hau sinatu duten pertsonek eta erakundeek –Eskualdeko Foroko parte-hartzaileak eta foroaren ostean adierazpenarekin bat egin duten pertsonak eta erakundeak– hau adierazten dute:

I. Ura izaki bizidun guztien eskubidea da

Ura izateko giza eskubidea arriskuan dago mundu osoan, gaur egun garapen-eredu jasanezinak baitira nagusi. Uraren zirkulaziorako eta izaki bizidunen beharrak asetzeko beharrezkoak diren ekosistemak kaltetu dituzte eredu horiek, eta, hala, planetaren bizitzan eta osasunean ezinbestekoa den zikloa berriro hasi da.

Eskasiak eta kutsadurak adierazten dute munduko uraren krisia, eta mila eta bostehun milioi pertsonari eragiten diete; horietako gehienak herrialde txiro-etakoak dira.

Nazioarteko erakundeen konplizitatearekin eta gobernuen babesarekin, nazioz gaindiko enpresak akueduktuen eta estolden zerbitzu publikoak pribatizatzeko prozesuak aurreratzen ari dira, eta, orain, ur-baliabideen jabe egiteko mehatxua egin dute. Pribatizazio-prozesuek ura merkantzia bilakatzen dute, eta, horrez gain, zerbitzu publikoen tarifak garestitzen dituzte eta gizartean desberdintasunak sortzen dituzte, pertsona askori ura eskuratzeko aukera kentzen baitiete, hau da, oinarrizko eskubide bat kentzen baitiete.

II. Ura guztien ondasun izatearen aldeko munduko gizarte-mugimendua

Ura merkatuan sartzeko helburuz egindako pribatizazio globalari erantzunez, sareko mundu-antolamenduaren mugimenduarekin bat egiten dugu, uraren kudeaketa publikoa eta komunitarioa finkatzeko.

Elkartasun hori erakusteko, adierazpen asko sinatu dira; horien artean, Munduko Gizarte Foroa (2006), Caracasen, eta Uraren Munduko Foroa, Mexikon. Halaber, Cochabamban (Bolibia) gertatutakoa nabarmendu nahi dugu, baita Uruguaiko plebiszitua ere; ura guztion ondasuna dela aldarrikatzeko gizarte-prozesuaren lorpen handiak izan dira.

III. Eskualdeak, aniztasuna eta uraren gaineko problematika

Valle del Caucan eta Cauca iparraldean biztanle asko daude, hirietakoak, landa-eremukoak, indigenak eta afroen ondorengoak. Ingurumen-, geografia- eta kultura-aldetik oso desberdinak diren lurraldeetakoak dira, eta urarekin lotutako egoera ezberdinak dituzte.

Ur-oparotasuna ematen duten askotariko ekosistemak ditugu: basamortuak, Ande garaietako basoak, hezeguneak, Cauca ibaiaren bailara geografikoa elikatzen duten arro hidrografikoak eta Chocó-ko euri-oihanak, Ozeano Bareko itsas ekosistemei lotuak.

Paradoxikoki, gure eskualdean ur asko dago, baina, aldi berean, ur-eskasia ere badago. Oro har, lurralde honetako biztanleok ez dugu oraindik ikasi gure artean eta naturarekin harmonian harremana izaten. Hori argi ikusten da honelako egoera zailetan:

Estatuaren plangintza-politikek eta -tresnek eredu neoliberala ezartzearen alde egiten dute, 1991ko konstituzioan aurreikusitako Eskubide Sozialaren Estatua garatzearen kalterako. Horren adibide argia da 2002ko 1729 Dekretua –arro hidrografikoen ordenamenduari buruzkoa– aplikatzea. Metodologia bat ezartzen du, eta, erabilera-planak kanpoko agenteen esku uzteaz gain, ez ditu komunitateen parte-hartzea eta bestelako aspirazioak kontsultatzen, errespetatzen eta bermatzen. Egun indarrean dagoen legedia, Errepublikako Kongresuan eztabaidatzen ari direna, erakunde eta enpresei baldintza mesedegarriak jartzera bideratuta dago, ura pribatizatzeko eta merkatuan sartzeko aukera izan dezaten. Hor kokatu behar dira, halaber, megaproiektu hidroelektrikoak, akueduktuak eta eremu babestua administratzeko kontzesioak, legez kontrako erabilera errotik kentzeko estrategia eta ordena publikoko gatazken maneiua.

Garapen-eredu jasanezin horiek ekosistemen egonkortasunari eragiten diote zuzenean (estaldura begetalak galtzen dira, nekazaritzako mugak zabaldu, hezeguneak lehortu, biodibertsitatea galdu, nekazaritzan eta abeltzaintzan jarduera desegokiak egin dira, eremuak basamortu bihurtu, ingurumen-inpaktu negatiboa eragiten duen turismoa sortu, dirua alferrik xahutu eta zikinkeria sortu). Horrek guztiak pobreen eta aberatsen arteko desberdintasunak areagotzen ditu herriko sektoreetan (hiri-inguruetan, miseria, biztanleriarentzako arriskuak eta ordena publikoko gatazkak), eta, horren ondorioz, balio etnokulturalak galdu eta ura balio ekonomikoko baliabide bilakatzen da. Baliabide horrek ez du ulertzen uraren zikloaz, ez eta ekosistemen harremanaz ere (pribatizatu eta azaleko nahiz lur azpiko ur-baliabideak xahutzen ditu azukre-kanaberaren nekazaritza- eta industria-sektoreak).

IV. Uraren politika nazionala ituntzearen alde

Kolonbian urarekin harremana duten problematikak egiturazkoak dira. Konponbideak gizarte zibilean pentsatu, sozializatu eta ituntzeko prozesuek pertsonen eta erakundeen parte-hartzea, artikulazioa eta konpromisoa behar dute. Pertsona eta erakunde horiek prest egon behar dute politika publikoak egin eta proposatzeko, betiere bertako esperientzietan eta balioetan oinarrituta, gero bertako gobernuekin, eskualdetakoekin edo estatukoekin egindako negoziazioetan legeen eta planen edukiak zehazteko.

Aipatutakoari eutsiz, baztertu egiten dugu Gobernu Nazionalak Errepublikako Kongresuan aurkeztu zuen 365 zk.ko Legea, 2005eko apirilaren 21ekoa, ez delako herritarrek itundua, ez dituelako islatzen uraren arazoarentzako konponbideak, eta, bestalde, arazoa areagotu egiten duelako; izan ere, enpresari pribatuei, nazionalei eta atzerritarrei kontzesioak ematen dizkie, eta uraren merkatuari ateak irekitzen dizkio. Lurralde-antolaketari eta herritarren parte-hartzeari dagokionez, egindako aurrerapenak ahultzen ditu.

Proiektu hori ez onartzeko deia egiten diegu Ordezkarien Ganberari eta Errepublikako Senatuari, eta uraren politika nazionala ituntzea defendatzen dugu; politika horrekin, ura guztion ondarea izango da, eta merkatuko legeetatik kanpo geldituko da. Halaber, uraren gestio publikoa eta komunitarioa indartuko dira, eta, eskualdeko bakoitzeko ingurumen-irizpideak, irizpide sozialak, ekonomikoak, kulturalak eta politikoak aintzat hartuta, lurraldea antolatuko da.

V. Ekintza hauek aurreratzeko konpromisoa hartu dugu

Eskualdeko ahalik eta erakunde sozial eta komunitario gehienak motibatzea ura guztion ondasun gisa aldarrikatzen duen mugimendu sozialean sartzeko; asmo hori zeharkako ardatz gisa hartuko da ekintza planetan, lurraldeari buruzko planetan sartzen diren herri-, eskualde-, eta nazio-politika publikoen gainean informatzeko, eztabaidatzeko eta ituntzeko prozesuak martxan jartzeraaan.

Valle del Caucan eta Cauca iparraldean *Ura: ondasun publikoa* kanpainaren lehen fasea garatzeko programatutako ekintzetan herritarren babesa eta laguntza sustatzea, kasu batzuen inguruan.

Eztabaidarako eta ekintzarako galderak

- Zer elementu berri ikusi dituzu testuan?
- Zer aspektuk harritu zaitu?
- Zer gehituko zenuke?
- Egin mapa kontzeptual bat: identifikatu edateko urik ez izatea eragiten duten kausak eta horren ondorioak. Zer ikusten duzu? Konparatu eta aberastu gainerako taldekideekin.
- Zein dira talderik ahulenak? Zer egin daiteke haien egoera errazteko?
- Zer egin dezakezula uste duzu egoera hori hobetzeko?
- Ikertu gizakiak ura izateko duen eskubidearen gainean, eta egin iritzi-gutun bat.
- Idatzi gutun bat IMCAri, egiten duen lana baloratuz.
- Idatzi gutun bat hemengo ikasleei, eta gonbidatu “ura, ondasun publikoa” uraren nazio-kanpainan parte hartzera.
- Zabaldu zure iritzia komunikabideetan eta ahal duzun bitartekoetan: prentsan, irratian, Interneten...

Garapenaren bortizkeria: Ukai presaren azterketa Gujarat-en, Indian

*Lancy Lobo sj**

Indiako zenbait estatutan garapenak eragin dituen lekualdatuei buruzko azterketek diote adivasiak Indiako populazio osoaren %8 baino ez izan arren lekualdatutako pertsonen %40 inguru adivasiak direla. Adivasiak Gujarat-eko populazio osoaren (50 milioi) %15 dira. Presetako asko adivasien habitatean eraikitzen dira, eta haienak diren baliabideak adivasi ez direnei transferitzen zaizkie. Adivasiak dalit-ak (ukiezin ohiak) baino askoz atzeratuago daude alfabetatze mailari eta lidergo politikoari eta sozialari dagokienez. Erraz geratzen dira esplotazioaren mende.

Mendebaldeko Bengala eta Keralako lekualdatzeei buruz egin diren azterketek diotena baino gehiago eragin diete garapen-proiektuek tribuei, datiei eta beste kasta atzeratuei. Gujarateko esperientzia ez da bestelakoa izan. Aitzitik, familiakopuru handiagoa lekualdatu da hara. Gobernuaren garatze-proiektuek eragindako lekualdatzeek aurkako ondorioak izan dituzte milioika pertsonengan, eta haien etxe, bizibide, kultura eta nortasunean. Nahitaezko lekualdatzeek jendea alde batera uzten dute, ez fisikoki soilik, baita sozialki eta kulturalki ere.

Sardar Sarovar proiektuak (SSP), Narmada ibaian, munduaren arreta bereganatu du. Azterketa ugari egin da SSPri buruz, baina Ukai presaren kasua saihestu egin da. Gujarateko bigarren presarik handiena, Ukai presa, aukeratu dut garapenak eragindako lekualdaketak aztertzeko. SSPk birgaitze-multzo askoz hobea izan zuen; Ukai presak, berriz, birgaitze sinbolikoa izan zuen.

* Lancy Lobo sj, kultura antropologoa eta Vadodaran dagoen, Gujerat, Centre for Culture and Development-eko (kultura eta garapenerako zentroa) zuzendaria da.

Ukai presak lekualdatutako pertsonak

Ukai presa erabilera anitzeko proiektua da. Ureztatzeko ura, energia-ekoizpena eta arrantza ziren proiektuaren helburuak. Ukai presa eraikitzeko lanak 1961ean hasi ziren, eta 1971n amaitu. Urperatutako azalera 200 milia koadro da, eta lau *talukas viz*[1]-etako 170 herriei eragiten die, hain zuzen ere, Surat barrutiko Songadh, Sagbara, Uchchal eta Nizar *talukas viz*-etakoei. Proiektuak 100 herri urperatu ditu erabat, eta beste hirurogeita hamarren parte bat. Proiekturako 215.199´40 hektarea lur eskuratu ziren, eta 45.253 familiei eragin zien. 9.859 familia lekualdatu behar izan ziren, eta horietatik 5.643 familiak granjak zituzten. Gehienak adivasiak ziren (aborigenak, tribalak), vasavas, kathudis eta bhils deituak.

Birkokatzeko lekualdaketen antolaketa eta informazioa hutsaren hurrengoak izan ziren, eta behin toki berrian kokatuta gertatuko zitzaienari buruz ezer gutxi zekiten. Ez zituzten ezagutzen lurrak eskuratzeko eta konpentsatzeko prozesuak, eta axolagabekeria ofizialaren eta promes faltsuen biktima izan ziren. Urte gutxi batzuetan baino ezin izan zioten eutsi lan edo enplegu alternatiboaren promesari.

Ordaindu zieten konpentsazioak ez zuen eman familia epe mugatu batetik aurrera mantentzeko. Ordainetan emandako dirua sotengurako edo etxeak eraikitzeko erabili zen nagusiki. Konpentsazioak ez zuen kontuan hartu ekoizpenaren alderdia; jabetzaren salmenta baino ez zuen kontuan hartu, eta bidegabekeria handia izan zen hori. Konpentsazioaren parte gisa lurra lurraren truke eman bazieten ere, gutxiegi izan zen jasandako galeraren ikuspuntutik. Leku berrietan hazi eta garatzeko borroka gogorra izan da.

Arau orokor gisa, laborarien familia bati 3 *guntha* lur emango zioten, eta laborari ez zen familia bati 1 *guntha* etxea eraikitzeko orube gisa. Diru-sarrerarik gabeko lurretan eta gobernuarenak ziren baso-lurretan kokatu zituzten berriro lau kokalekutan. Nekazaritzako lurretan familia bakoitzari emandako lur-azalera handiena sekula ez zen izan lau akretik gorakoa. Egoera horretan, nekazari gehienek peoi-lanetan hasi behar izan zuten, edo beste toki batzuetara migratu.

2006ko martxoan, hamabost kokaleku aukeratu genituen; horietako askok jatorrizko herriaren izena zeukaten. Galdetegi baten bitartez, guztira 1.881 pertsona hartzen zituen eta 322 etxetan banatuta zegoen populazioaren artean galdeketa

[1] Talukas viz: barruti-banaketak.

bat egin zen. Toki bakoitzean eztabaida-taldeak ere antolatu genituen. Borda, Pipripada, Zeriamba eta Kuilivel-eko jendeak azaldu zigunez, toki berrietarako lekualdaketa amets gaiztoa izan zen. Kasuren batean kamioiak jarri zizkieten eskura, baina gehienetan idi-gurdietan edo buru gainean eraman behar izan zituzten gauzak; egunak eta gauak eman zituzten oihanean, urik gabe eta gosetuta, haurrak negarrez. Bat baino gehiago zauritu egin zen, eta gutxi batzuk gaixotu egin ziren. Ibilaldian zehar, etxeak eraikitzeko materialak, hala nola teilak, hautsi egin ziren.

Lehengo kokalekuen eta kokaleku berrien arteko ezberdintasunak

Populazioaren ehuneko laurogeita bederatzi adivasia edo tribala zen. Ehuneko laurogeita sei proiektuak lekualdatutako jendea zen (DPs), eta %14 proiektuak nolabait erasandako jendea (PAP). Bi herri soilik eraman zituzten oso-osorik beste bi tokitara. Horrez gain, jatorrizko herrietako jendea beste 21 herritan edo kokalekutan birkokatu zituzten. Aztertu diren etxeetan gizonezkoen %27 eta emakumezkoen %38 analfabetoak ziren. Irakurtzen zekitenetatik bakan batzuek ikasi zuten 10. kurtsora arte edo hortik gora.

Lekualdatutako pertsonek 4.331 hektarea zituzten sorterrian. Kokaleku berrietan, 1.107 hektarea baino ez dute; 3.224 hektareako aldea, lekuz aldatu aurretik zutenaren %25 hain zuzen ere. Lekualdatze ondorengo lur-jabetzaren aldaketa-portzentajean bi joera hauek ikus daitezke: 1) azalera txikiagoko jabetza-kopuruak gora egin du (1-3 hektarea artekoak) eta 2) azalera handiagoko jabetza-kopuruak behera egin du (5 hektareakoak edo gehiagoak).

Baliabideak, berriz, aurretik eta ondoren, honela aldatu dira: eskrituratutako 901 jabetza gutxiago, 6 urmael gutxiago, 3.289 zuhaitz gutxiago, 994 aziendaburu gutxiago eta 889 hegazti gutxiago. Arkume-kopuruak bakarrik egin du gora: 1.227 buru gehiago.

Era berean, esan zuten kokaleku berrien hasierako aldian behar adina lur izan zela, baina familien tamaina hazi zen neurrian lurra banatu beharra gertatu zen. Eman zieten lurra harritsua, malkartsua eta lehorra zen, eta haren etekina, sinbolikoa. Zeriambako Damaniyabhai-k honako hau esan zuen: “Urrezkoa zen lurra galdu dugu”. Egoera ekonomikoa txarra izan zen, eta familien migrazioa ekarri zuen. Gehienak jornalari gisa kontratatu zituzten, eta beren familiekin emigratu behar izan zuten hilabetetik sei hilabete baino gehiagoko epealdietarako.

Badaude modu erregularrean emigratu behar izan duten familiak, eta familia-kopuru horrek gora egin du azken hamar urteotan.

Lekualdaketaren ondoren emakumezkoek arazoak izan al dituzte? %33k aipatu zuen etxetik kanpoko enplegua desagertu egin zela; %59k esan zuen egurra lortzea zaila zela, %21ek edateko ura lortzeko arazoak izan zituzten eta %42k esan zuen etxean lan egin behar izan zutela.

Zenbait herritan egindako elkarrizketen arabera, hizkuntza, bizimodu, tradizio eta erlijio-ohituretara egokitu behar izan zuen jendeak. Sheltipadako Jethiabhaik eta Dungarbhaik erlijio berrien aurka egin behar izan zutela esan zuten. "Proiektuaren aurretik gure etxeen artean halako distantzia bat bazegoen; baina orain bata besteari atxikita daude, eta liskarrak izaten dira" esan zuen Ruiabhaik. Khaptiben, Supdiben eta Thaguben eta beste hainbat emakumek lana lortzeko beren herrietatik at joan behar zutela esan zuten. Gazteek, lan-aukerarik ez zutenez, karta-jokoan eta edaten edota bestelako bizioetan galtzen zuten denbora. Besteak beste, malariak eta tuberkulosiak gora egin dute kokaleku horietan. 35 urteren buruan, ez da ia hobekuntzarik izan eskola, errepide, elektrizitate eta edateko urari dagokienez. Gazteentzako lan duinik ez dago, ez eta industriarik ere.

Ondorioa

Erasandako jendeak jaso duen laguntza-multzoa hutsaren hurrengoa izan da. Konpentsazioak ez ditu epe luzerako kostu ekonomikoak, sozialak eta kulturalak kontuan izan. Herrien bizimodu tribalaren bizitasuna eta hobetzeko gogoa hutsaldu egin ziren lekualdaketarekin.

Konpentsazioan kontuan hartutako kostu ekonomikoak berak ere desegokiak izan ziren. Jendeak ez zekielako lekualdaketak berarekin zer ekarriko zuen eta negoziatzeko ahalmenik ez zuelako gertatu zen hori neurri handi batean. "Gobernuak iruzur egin die gure zahar eskolagabe eta ezjakinei" esan zuen Vajpur herriko Supadiabhaik.

Gaur egun, jendeak ezagutzen ditu lekualdatze, berkokatze eta birgaitze terminoak. Ukai presaren ondorioz lekualdatutakoak jabetu zirenean zenbaterainoko pobreziara eraman zituzten, eta SSPkoei eskaini zietena aintzat hartuta, gobernuari konpentsazio egokia eskatzen hasi ziren.

Duela gutxi, 2006ko ekainaren 27an eta 28an, Ukaik erasandakoen egoera larria zehazten duen berria eman zuen argitara *Gujarat Today* egunkariak. *Mamlatdar-i* (gobernuko ofizialari) memorandumak bidaltzen ari dira lantzeko lurra eskatuz, bai eta etxeak erakitzeko lurrak ere. Urteko zatirik handienerako hirietara eta lautadetara migratzen dute bizimodua ateratzeko, eta hilabete gutxi batzuetarako atzera beren kokalekuetara itzultzen dira, eta han erasoak sufritu behar izaten dituzte. Pertsona horiek beren etxolak eraikitzen ari zirela su-armaz hornitutako bost pertsona azaldu ziren, eta etxolak suntsitu zizkieten eta mehatxu egin zien berriro itzul ez zitezen.

Beste leku batera joan behar izan ez balute, haien egoerak ez zuen okerrera egingo. Horien egoera eta atzean utzi dituztenena konparatu behar dira. Lekualdatutakoen egoerak atzera egin du 70eko hamarkadan zehar. Bakan batzuek bizimodua hobetzeko aukera izan badute ere, zaila izaten segitzen du lekuz aldatu behar izan ez dutenen parean mantentzea. Haien egoera zooko txori batena da, eta ez txori aske batena. "Indiako oihanen, ibai handien eta mineral baliotsuenen artean bizitzea izan da haien zorigaitza. Baliabide horien balioak gora egin duen heinean, herri horiek tokia egin behar izan diote oihaneko enpresa komertzialei, presa handi eta txikiei eta meategiei", idatzi du Guha antropologo ospetsuak.

Birgaitzeak ez luke zama izan behar, proiektu osoaren zati bat baizik. Konpentsazio txikia ordaindu zenean, kalkulatu al zen lurraren errenta?

Ukaiko lekualdatuak beren eskakizunak lortzen ari dira tokiko egunkarietako txostenetan ikus daitekeenez. Ezinbestekoa da lekualdaketaren giza kostuak berrikustea, Ukaik erasandakoen alde neurri zuzentzaileak hartzeko. Gujarateko jesuita asko adivasiekin –Ukai proiektuak erasandakoekin barne– eskuz esku ari dira lanean boterea berreskura dezaten, eta horrek biziki pozten gaitu.

Gujaraten 1947tik 2004ra lekualdatutako familia-kopurua eta eskuratutako lurbolumena ageri da honako taula honetan:

Kategoria, eskuratutako lurra eta lekualdatutako familiak Gujaraten (1947-2000)						
zk.	Proiektuen kategoria	LAQ (H)	% adina	Familia	% adina	Pertsonak
01	Ur-baliabideak	1784752	60.87	251367	59.43	1307108
02	Industriak	171194.9	5.84	14522	3.43	75514.4
03	Minas	6834.34	0.23	416	0.10	2163.2
04	Non-Hydel	16565.85	0.57	1202	0.28	6250.4
05	Defentsa eta segurtasuna	7128.371	0.24	285	0.07	1482
06	Ingurumena babestea	1365.522	0.05	223	0.05	1159.6
07	Garraioa eta komunikazioak	681037.7	23.23	141382.42	33.43	735188.6
08	Giza baliabideen garapena	70428.14	2.40	1954	0.46	10160.8
09	Granjak eta arrain-haztegiak	3730.844	0.13	1118	0.26	5813.6
10	Hiri-garapena	128331.8	4.38	5648	1.34	29369.6
11	Berkokapena eta errefuxiatuak	804.503	0.03	50	0.01	260
12	Gizarte-laguntza	28720.69	0.98	2112	0.50	10982.4
13	Turismoa	606.2335	0.02	76	0.02	395.2
14	Gobernuaren bulegoa	21598.88	0.74	821	0.19	4269.2
15	Ez da ezagutzen.	8875.766	0.30	1798	0.43	9349.6
	Guztira	**2931976**	**100.00**	**422974.42**	**100**	**2199467**

LAQ = Eskuratutako lurra hektareatan.



Glosarioa

1992. urteko Dublineko deklarazioa: Urari eta ingurumenari buruzko nazioarteko konferentziaren amaieran onartutako deklarazioa (Dublin, 1992). Bilera hartan, bostehun partaidek –besteak beste, ehun herrialdetako gobernuek izendatutako adituek eta nazioarteko, gobernuarteko eta gobernuz kanpoko laurogei erakundetako ordezkariek– eztabaidagai izan zituzten garapen jasangarrirako eta ingurumenerako arriskutsu diren ur gezaren eskasiak eta gehiegizko erabilerak, zeinak osasuna eta giza ongizatea, elikadura-segurtasuna, garapen industriala eta dagozkien ekosistemak arriskuan jartzen baitituzte.

Deklarazioak politika-konpromisoari dei egiten dio, ikuspegi berria eman diezaion ur gezaren baliabideen kudeaketari, ebaluaketari eta ustiapenari. Berehalako inbertsio itzelen beharra onartzen du sentsibilizazio-kanpainetan, eremu legegile eta instituzionalen aldaketetan, teknologiaren garapenean eta konpromisoa aurrera eramateko ahalmen-sorreren programetan.

[www.pobrezacero.org/img_bol/declaracion_dublin.pdf]

[www.wmo.ch/web/homs/documents/espanol/icwedecs.html#introduction]

Corporación Autónoma Regional del Valle del Cauca (CVC): valle del Cauca-ko garapen integrala sustatzea helburu duen estatu mailako kolonbiar elkartea. Ingurumen-agintaritza gauzatzen eta garapen jasangarria sustatzen ditu, Valle del Cauca departamenduko gainerako arlo sozialekin eta Kolonbiako Sistema de Información Nacional Ambiental erakundeko beste partaideekin batera.

[www.cvc.gov.co]

Egitura Egokitzeko Plana: nazioarteko Moneta Funtsak eta Munduko Bankuak zorraren krisiari erantzuteko proposaturiko politika-multzoa, krisiak erasandako ekonomiak egonkortu eta berregituratzeko helburuarekin, zorraren zerbitzuaren ordainketei aurre egin ahal diezaioten.

[www.debtwatch.org]

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak: nazio Batuen Gutunean (San Francisco, 1945) aipaturiko printzipioei jarraituz, giza familiaren kide guztiek atxikirik duten duintasuna eta haien eskubide berdin eta besterezinak onartzean oinarritzen dira askatasuna, justizia eta bakea munduan. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren arabera (París, 1948), ezin da garatu ereduzko gizon-emakume librea, beldur eta miseriatik askatua, baldin eta ez badira sortzen gizabanakoak bere eskubide ekonomiko, sozial eta kuturalaz, bai eta eskubide zibil eta politikoaz, gozatzea ahalbidetuko dioten kondizio egokiak. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalei esker sortuko dira pertsonentzako bizi-maila egokiak. Arlo hauek babesten dituzte: gizon eta emakumeen arteko berdintasuna; irisgarritasuna eta lan-baldintzak; sindikatuetan biltzeaa; gizarte-segurantza; familiari lehentasuna ematea eta haurretzako babes berezia; kultura gozatzea; elikadura; etxebizitza; hezkuntza; osasun fisiko eta mentala; ingurugmen osasuntsua.

Badago Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itun bat, 1976. urtean indarrean sartu zena eta 150 herrialdek baino gehiagok berretsi dutena.

[www.unhchr.ch/spanish/html/menu3/b/a_cescr_sp.htm]

[www.choike.org]

Giza Kokalekuentzako NNUU Programa: nazio Batuen agentzia, gizarte-ereduaren eta ingurumenaren ikuspuntutik herri eta hiri jasangarriak sustatzeaz arduratzen dena pertsona guztiei ostatu egokia emateko.

[www.unhabitat.org]

GKE (Gobernuz Kanpoko Erakundea): boluntario moduan eta irabazi-asmorik gabe, gobernuarekiko independente antolatzen den pertsona-taldea. Horien helburua da gizartearen parte-hartzea bultzatzea eremu hauetako proiektuen bidez: garapena, laguntza, kultura, aisialdia, kirola, eta nazioarte-

ko eta ingurumeneko hitzarmenak aplikatzeko proiektuak. 1945. urtean, Nazio Batuen Gutunak GKEen existentzia formalki onartu zuen.

Ingurumen-jasangarritasuna: egungo belaunaldiaren beharrak asetzea da, etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko gaitasuna arriskuan gabe. Barnean hartzen ditu esaterako, herrialde batek bere jasangarritasun-gaitasunaren azpitik mantentzea populazioaren dentsitatea, baliabide berriztagarrien berrikuntza sustatzea, baliabide ez-berriztagarriak gordetzea eta haiek erabiltzeko lehentasunak ezartzea, eta ingurumen-inpaktua beharrezko mailaren azpitik mantentzea kaltetutako sistemak berreskura daitezen eta beren eboluzioak aurrera jarrai dezan.

[www.fao.org]

Iraultza berdea: nazioartean, iraultza berdea izenarekin izendatu zen 1943. urteaz geroztik Mexikon gertatutako nekazaritza-ekoizpenaren gehikuntza handia; gehikuntza hori ekoizpen-teknika berritzaileei esker lortu zen (haziak genetikoki hautatzea, ureztatzeari esker lortu zen ustiaketa intentsiboa, eta ongarrien, pestiziden eta herbiziden erabilera masiboa). Teknika berri horiek gero beste herrialde batzuetan ezarriz joan ziren. Iraultza horren garrantziaren gakoa izan zen herrialde azpigaratuetan gosea eta desnutrizioa errotik kentzeko irtenbide baikorra aurkeztea. Ekoizpenaren igoerari zegozkion emaitzak ikusgarriak izan ziren. Baina alde txarrak berehala agertu ziren: biltegiratzea eta kontserbazioa, hazien eta teknika osagarrien gehiegizko kostua, mendekotasun teknologikoa, alde batera utzitako ohiko laborantzaren moldaera hobea edo plaga berriak agertzea. Hori guztia dela eta, oso kritikatua izan zen ikuspuntu askotatik, arlo ekologikotik ekonomikora, bai eta kulturaletik eta nutriziozkotik ere.

[http://es.wikipedia.org/wiki/Revoluci%C3%B3n_verde]

Jabekuntza: pertsonen gaitasunak, konfiantza, ikuspegia eta protagonismoa talde sozial gisa indartzeko erabiltzen den prozesua, bizi dituzten egoeretan aldaketa positiboak eragiteko. Beste hitz batzuetan esanda, jabekuntza da pertsonei gaitasuna ematea bakoitzak boterea eskatu, onartu eta erabiltzeko.

[www.fride.org/File/ViewLinkFile.aspx?FileId=980]

Klima-aldaketa: denboran zehar gertatzen diren kondizio atmosferikoen aldaketei deritzo (tenperatura, prezipitazioak, hodeitza, haizea eta abar). Jatorria prozesu naturalei loturik dago, baina baita giza jarduerei ere (deforestazioa, kutsadura, industrializazioa...). 1992. urtean, herrialde gehienak nazioarteko itun bati atxiki zitzaizkion –Aldaketa Klimatikoari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena– berotze atmosferikoa gutxitzeko zer egin daitekeen kontuan hartzen hasteko eta saihestezinak diren tenperatura-igoeren aurrean neurriak hartzeko. 1997. urtean, gas-emisioek eragindako "berotegi-efektuaren" ondorioen beldur, gobernuek hitzarmenari Kiotoko Protokoloa gehitzea erabaki zuten.

[http://unfccc.int/portal_espanol/essential_background/convention/items/3323.php]

Merkataritza Libreko Ituna (MLI): bi herrialde edo gehiagoren arteko kontratua da, edo herrialde baten eta herrialde-multzo baten artekoa. Loteslea da, eta merkataritza-trukerako oztopoak ezabatzea eta ondasun nahiz zerbitzuak eskuratzeko aukera sendotzea da haren helburua, baita inbertsio pribatua errazago lortzea ere. Ekonomien integrazioa areagotzeko xedearekin, Merkataritza Askeko Itunak ez ditu soilik merkataritza gaiak jorratzen. Gai ekonomikoak, instituzionalak, jabetza intelektualekoak, lanekoak eta ingurumenekoak ere jorratzen ditu, besteak beste. Teorian, ekonomiako sektorerik ahulenak babesteko, negoziatzen duten herrialdeen gaitasun instituzionalak sendotzea aldezten du Merkataritza Askeko Itunak, eta foroak zein mekanismoak ezartzen ditu merkataritzaren arloko eztabaidak ebazteko; errealitatean, botere gehien duen alderdiaren interes ekonomikoek ebazten dute eztabaida.

[www.tlcperu-eeuu.gob.pe/index.php?ncategoria1=101&ncategoria2=104]

Mikroarroa/Arroa: Urak ibai, laku edo itsaso berera isurtzen dituen lurraldea.

[www.rae.es]

Munduko Gizarte Foroa (FSM): ideiak eztabaidatzeko, hausnartzeko, proposamenak egiteko, esperientziak trukatzeko eta mugimendu sozial, sare, GKE eta sozietate zibileko beste erakunde batzuk –neoliberalismoari eta mun-

dua kapitalaren edo imperialismo baten bidez menderatzeari kontra egiten diotenak guztiak– artikulatzeko gune demokratikoa.

[www.forumsocialmundial.org.br]

Urari buruzko Munduko Foro Alternatiboa: elkartze-mugimenduek eta nazioarteko erakundeek kontinente guztietan egindako ekintzen ondorioz sortzen da foro hau. Uraren arazoak konponbidea duela sinesten dute, eta erakundeak zein alternatiba politikoak ikertzeko, proposatzeko eta sortzeko mobilizatzen dira.

[www.fame2005.org]